


Jesus Maria Etxezarreta
«IZAZPI»

HASPEREN TTANTTA BIHOZTIAK



AUSPOA

2236

GAS-128/74



HASPEREN TTANTTA BIHOZTIAK

Auspoa Liburutegia
216

Auspoa Liburutegia
EDITORIAL AUSPOA

Plaza Santa María, 2 - Tolosa (Gipuzkoa)
Tfno. (943) 67 12 82

Jesus Maria Etxezarreta
«IZAZPI»

HASPEREN TTANTTA BIHOZTIAK

Auspoa Liburutegia

*Azalean: Aranburu-etxeberri baserria,
Izazpi-ren jaiotetxea.
Juan Ramon Elisbururen Marrazkia.*

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)
Fotokonposatzalle: Cometip fotocomposición, S.L., Pamplona.
Inprimatzalle: Gráficas Lizarra, S.L., Estella (Navarra)
ISBN: 84-7158-165-5
Depósito Legal: NA. 615-1992

*Gure ama zanari,
bizia eta bertso-zaletasuna
eman zidalako.*

HITZAUREA

Izazpi izenordeaz izenpetzen duen bertso jartzaile ugaria ezaguna da bertsozaleen artean. Hainbeste bertso argitaratu ditu, izan ere, azken urte hauetan. Sari mordoia irabazi ere bai.

Ez dakit, ordea, beraren izen-deiturak denak ezagutuko dituzten. Jesus Maria Etxezarreta Sudupe dugu bera, Zumarragako Aranburu-etxeberri baserrian 1940 urtean jaioa, eta gaur Deban bizi eta Mutrikun irakasle dena. Makina bat bertso txapelketetan ere epaile izana.

Bertso-zaletasuna nondik sortu zitzaion, berak aitortzen du liburu honen eskeintzan: amagandik. Izkuntzarekin batean xurgatu zuen sena hori ere jaiotetxeko giro gozoan.

Ondoren, berriz, bere ikaskuntzak egiten zituen denbora berean, euskera eta bertsolari sena hoiiek landu eta aberastu egin zituen. Baita bertso jartzeari ekin ere.

Ez dakit zenbateraino ohartu geran azken ogei ta bost urte hauetan gertatu dan berrikuntza batez. Garai batean, bertso gintza eskolatu gabekoen langintza zan. Orain, berriz, gizon eskolatuak ere sartu dira zer egin hortan. Edo, gauza bera aldereantziz esanda, bertsoak kulturaz ondo jantzitako gizonak ere bereganatu ditu.

Gizon ikasi auek bertsolaritzari zer ekarri dioten? Bertsoaren egitura eta teknika goitik behera aztertu dituzte, eta alderdi hortatik inoiz baino hobeki borobil-

dutako bertsoak moldatzen dakite; inoiz baino arreta haundiagoaz landutako bertsoak eskeintzen dizkigute.

Baina ez ahal dute zerbait galdu? Bai, nere ustez. Lehengo bertsolari jatorren aozkotasunaren bizitasun ura urritu egin zaiela esatera ausartuko nintzake.

Edozein moduz, bertsolaritzak bere eremua zabaldu egin du, alor berri bat eta langile berriak bereganatuz.

Baina bertso jartzaile berri hoiengan lanak aldizkarietan-eta sakabanatuta daude. Haien bertsoak bilduz oso liburu gutxi azaldu da. Eta, hori egin ezean, merezi hainako aitormenik emango etzaiela esan beharrik ez dago.

Hutsune hori betetzen hasi nai luke *Auspoa* liburutegi onek. Gaurkoan *Izazpi*-ren bertsoak bildu ditu –ez danak, hori gehiegi bailitzake, baina bai onenak edo gaurkotasuna galdu gabekoak–, urrengoan beste bertso jartzaile batekin gauza bera egiteko, bertso zaleak liburu hauei harrera ona egiten badiete behintzat.

A.Z.

IRAKURLEARI

Urduri eta kezkatu natorkizu, irakurle. Hau da nere bigarren liburuxka, eta horrek kezka eta ardura ematen du.

Bertso xume hauek idazterakoan, nere lagun, kezka eta ingurunea izan nituen gogoan.

Euskera xamur eta errexean idatziak daude guziak. Hauxe bakarrik desio dut: zure eskutan erortzen bada liburuxka hau, punta batetik bestera irakur dezazula eta kanta ditzazula bertsoak dagokien doinuan.

Neretzat sarietan saririk ederrena horixe litzateke.

Nik lerro xume hauek
idazterakoan,
nere idazle fama
ez nuen gogoan.
Inor izan ez banu
eskean alboan,
hor ustelduko ziren
harmairu xokoan.

Liburu hontan doa
nere almazena,
eskutatik erortzen
bazaizu, zer pena!
Irakurtzen baduzu
hor dijoan dena,
neretzat sarietan
sari ederrena.

Izazpik

JOAKIN ETA PELLO

- 1/ Lagun maiteak ditut
Pello eta Joakin;
etxera joan dira,
zergatik ez jakin.
Hemen agintzen daude
hainbat buru arin
aipatuko nituzke,
baina ixil nadin.

- 2/ Deabru batek zeukan
ezin ikusia,
egin duena baida
gauza itxusia.
Azkar erabaki du
lagunen hauzia,
berak ez izan arren
arrazoi guzia.

- 3/ Ai, zenbat egun eder
zuekin paseak,
betirako eraman
zizkidak haizeak.
Ta zeinek arinduko
dizkit oinazeak?
Hemen gelditzen nauk ni
penaz ta goseak.

4/ Golpetik utzi naute
lagunik gabea,
erruki zaite nitaz,
munduko Jabea.
Bakarrik gelditzen zait
sena ta fedea,
hau da tristura eta
hau bakardadea!

1960-ko maiatzean

BIZITZA GARRATZA

- 1/ Fraile gazte baten penak,
bihotz barrendik irtenak,
askok esango dute gezurrak
direla gehienak.
Gauz asko esan leizkenak,
ez ditut esango denak,
neregatik ez ditezen galdu
ezjakin daudenak.

- 2/ «Gertatutako kasoak
ta emandako pausoak
gogoan ditut, nere bihotz ta
buruan jasoak.
Utzi nitun gurasoak,
gero egun penosoak,
pasatzen ari naizen trantzeak
ez dira gozoak!

- 3/ Ez naiz inorekin fio,
nere atzetik propio,
fraile santuen artean ditut
hainbat kontrario.
Saldukeria serio
gezurra dela medio;
tristura baten aurkitutzea
ez da misterio!

- 4/ Goiztar gera gu jeikiko,
grinak ote diren hilko;
ohean behintzat desio txarrik
ez dugu eukiko.
Koltxoi goxoen tokiko,
tabloi zahar bat dut azpiko;
bizkar ezurra gogortuko zait
horrela betikō.
- 5/ Sarritan modu txarrean
burni latzak iztarrean,
penitentzia egiten jolas
egin beharrean.
Gero ilunabarrean
zigorkadak bizkarrean,
barkazioa eskatutzeko
Jaunaren aurrean.
- 6/ Gauerdia iritxita,
ohe beroa utzita,
negu gorrian jeikita pronto
erropak jantzita.
Sagraria bixita,
kapilaraino jetxita;
hamaika aldiz egon naiz hilko
naizela etsita.
- 7/ Aginduak bete zuzen,
egurra gaintik ozen,
beharrezkoa dela diote
gogortu gaitezten.
Zerbait jatera goazen,
ez nago oraintxe gizen.
Ai, nere amak ondo baleki
nola bizi naizen!

- 8/ Gure nagusi gogorra,
bera salbatzen bizkorra,
mendekoentzat disziplina ta
gainetik zigorra.
Jateko ogi lehorra
eta otordu koskorra.
Erruki zaitez mesedez nitaz,
o Jainko jatorra!
- 9/ Kapritxo denak agindu,
Kristorenakin berdindu,
lehen gurutzea astuna bazen
ez zaigu arindu.
Egiak esanda mindu,
harrapatuko banindu...
Hamaika aldiz nahi duen dena
gurekin egin du.
- 10/ «Hemen bizi haiz ederki,
badituk mila aitzaki
–datozen denak hala diote–.
Non bizi hobeki?».
Neretzat ezin eduki
zakurrei hainbat erruki.
Nola bizi den hemen bakoitzak
ongiena daki.
- 11/ Kristau zintzoen antzera,
pausorik ez jo atzera;
hasitakoa bukatu gabe
zuzena ez zera.
Nolatan joan etxera
fama on dena galtzera?
Nere fameli gizarajoa
lotsaz betetzera?

- 12/ Kalterikan ez daukat nik
gurutzea eramanik,
nahigabetuen basamortua
mundu hau izanik.
Ez pentsatu dagoanik
gurutzerik ez duanik;
ezin aurkitu paradiso bat
penarik ez danik.
- 13/ Pentsamentu hauek ezik
ez dut alaitzeko gauzik;
nere munduko egunak dira
triste eta gazik.
Hiltzea hobe dut kasik,
ez daukat nik beste pozik
egunen baten zero ederra
kontsegitu baizik.
- 14/ Sartu nintzen kontenturik,
ez izan eskarmenturik;
orain ezin dut hemen atera
atarramenturik.
Ez dute sentimenturik,
errukitzeko konturik;
nik jaso izan behar banitu
ez zen konbenturik!».

Donostian, 1960-an

GURE ZUZENDARI DEN DON FRANTZISKO GARMENDIARI

- 1/ Misiolari bazoazela
atzo nuen hemen aitu,
alde batetik tristetu nintzen
baina bestetik alaitu.
Bide zuzena hartu dezu ta
bildurrik gabe jarraitu,
misiolari denen Jabeak
gogoan izango zaitu!

- 2/ Gaur zorionak opatutzera
zuregan doa jendia,
mundu hontako urte laburrak
hain azkar joaten dia.
Zure bizitzan berrogei ta bat
igaroak omen dia,
beste hainbeste zorionean,
Don Frantzisko Garmendia.

- 3/ Seminarion pasa dituzu
lanean hainbeste urte,
denok utzita orain bazoaz
hemendik oso aparte.
Ez zeunden lasai beltzen artean
bizitza gastatu arte,
misiolari jator ausartak
maitagarriak zerate.

4/ Zu jasotzera zoazenean
ogi zuria zerura,
maite dituzun gauz laztan haiek
ekar itzatzu burura,
zure lurreko senide eta
gainera mila ohitura,
ta batez ere zu azitako
ama laztan maite hura.

5/ Ahal duzun arte eutsi zaiozu
hartu duzun bide horri,
daramazkizun gogamen hoiek
denontzat dira pozgarri.
Han urrutitik albiste asko
bialdu honuntza sarri,
beso zabalik gelditzen gera
nahi duzunean etorri!

Donostian, 1961-2-18

AGUR, JOANITO GARAY!

Epailaren 20-an, notizi triste bat: Joanito Garay mi-siolaria hil dela. Okumare del Tuy, Ecuadorren zegoen. Urte t-erdi hemendik joan zela. Hogeita bost urteko apaiz gaztea.

1/ Gaur ezbehar bat kantatutzeko
nago serio jarria,
goizean eman digute guri
notizi negargarria:
lagun on batek izan duela
oso heriotz larria.
Joanito maite, nola utzi duk
negarrez dagon herria?

2/ Hirugarrena duzu honekin,
Jauna, ez gehiago kendu.
Horra Beraren gogoia nola
zaigun garbi nabarmendu.
Kulpa gabeko odolarekin
nahi du gizona zuzendu,
nahigabe hontan guk ai zer poza,
hori jakingo bagendu!

- 3/ Oraintxe dela urte ta erdi
zapaldurik aldarea,
zergatik, Ama, eraman duzu
udaberrian lorea?
Pentsamentu hau bialdu nahi dut
hemendik Okumarea:
beti hazia hiltzen denean
jaiotzen da landarea!
- 4/ Gure begien aurrean berriz
guk ez dugu ikusiko,
halako asmo ederrak hori
ote zuten mereziko?
Jauna, gaur zuri egin nahi dizut
galdera hau lehendabiziko:
zergatik hori eraman duzu
zeure ondora betiko?
- 5/ Ama Birjinak lore eder bat
eraman du beregana,
horregatikan penaz beterik
dago Euskal Herri dana.
Orain, Joanito, ez hezak ahaztu
munduan utzi dekana:
zerutik poztu negarrez utzi
dekan amatxo laztana!
- 6/ Gu zerura noiz joan behar dugun
esango digu garaiak,
bitarte hortan guretzat hemen
ez dira egun alaiak.
Joanito maite, hagon tokitik
alaitu hitzak anaiak,
ezbehar hontan lagun deiela
zeru ta lurren Artzaiak.

Donostian, 1961-ko Epailaren 22-an

DON JUAN MARTIN IRULEGIRI DESPEDIDARAKO BERTSOAK

1/ Don Juan Martin, nere buruan
baditut mila gogamen,
nik nahita ere ezin nintezke
guziak gaur jarri hemen.
Aurrena nere asmoa zer den
esango dizut hitz baten,
bertsoen bidez agertu nahi dut
besteak jakin dezaten,
mundu honetan zu bezelako
gutxi direla izaten.

2/ Mutil koskorrak sar ginanean
Seminario honetan,
guraso falta senti genuen
gure bihotz barrenetan.
Orain artean zure ondoan
egon geran egunetan,
amak bezela zaindu gaituzu
gure nahigabe denetan,
Don Juan Martin, txalogarria
zera zu bene-benetan!

- 3/ Zu beti bizkor lagundutzeko
inork bazuen gaitzikan,
ama-ordezko egin duzula
esateko ez dut lotsikan.
Zure bizitza ez baida izan
lagundutzea baizikan,
hainbat morrontza eginagatik
ikusten zaitut pozikan,
zu goraltzeko ez dut aurkitzen
merezi duzun hitzikan.
- 4/ Zu hemendikan joango zinenik
ez nuen inoiz usteko,
gauza txarren bat gerta ote da
gu era hontan uzteko?
Baina bazoaz guri utziaz
hainbat gauza ikasteko,
jaioterria eman dizute
berriz lanean hasteko,
gogotsu dago azken pausoak
hantxe bertan ikusteko.
- 5/ Toki guzitan egoten beti
izandu zera aparta,
hamaika *peska* egin dituzu
jira bakar bat emanta.
Seminaristak beti asmatzen
egoten omen gera-ta,
Jainkoa deitzen hasi gera gu
zu hain makala izanta...
Baina guziok maite zaitugu,
maitagarria zera-ta!

6/ Mundu hontako urte laburrak
bai azkar joaten dirala,
apaiz eginik zure mendean
gera berriz berehala.
Sinistu zazu etxe honetan
triste gelditzen gerala,
gaurko egunez galtzen delako
famili honen itzala;
Jaun Zerukoak urte askotan
ondo kontserba gaitzala!

1962-ko martxoa

HAU BIZITZA GARRATZA!
(Gipuzkoan gertatutako kaso batetik aterak)

1/ Hau azkenengo karta
nere amarentzat,
eta izan daiteke
edozeinerentzat.
Gorrotorik ez izan
inork lanarentzat,
horra zer premia
den alperrarentzat,
kalabozo triste hau
izan da neretzat!

2/ Hamar urte baino lehen
lapurretan hasi,
okerreko bidea
hain errez ikasi.
Beti mundu hontako
alprojekin nahasi,
gaiztakeri guziak
froga nitun kasi,
justizia atzetik
eta ni ihesi.

3/ Egun batean, ama,
triste zinen mintza:
«Seme, modu horretan
zergatik zabilta?».
Hura izan genuen
azkenengo hitza,
etxetik joan eta
ai nere bilitza!
Hobe nuen orduan
bigundu banintza!

4/ Bide txarrera batek
hain itxu jotzean,
zer ez luke egingo
denbora motzean?
Kopa batzuk edanda
erdi erotzean,
kapaz nintzen hiltzeko
bat odol otzean,
ezer sentitu gabe
nere bihotzean.

5/ Gaztetatik jo nuen
nik gaiztakerira,
eta ondoren hauek
hain tristeak dira!
Zorionsua izan
banintza sikira...
Baina destino txarrak
emanikan jira,
gela zahar baten nago
zerura begira!

6/ Zenbat gaitz egin dedan
neronen kaltean!
Ongi ibili nintzen
erori artean.
Gaur exerita nago
kriminal tartean,
eskuak eta anakak
loturik katean,
ama, hemen naukazu
tristura batean!

7/ Fede ta ostengoak
utzirik bazterren,
urteak pasa nitun
itxura ederren.
Leporaino sarturik
bizimodu txarren,
etsaieri jarraituz
mudatu beharren,
horra bide okerrak
beti zer dakarren.

8/ Gaztetatik harturik
etsaiekin parte,
geroztikan zeruko
bidetik aparte.
Hain gogorra izan naiz
azkenera arte,
Jaungoikoak argia
bialdu bitarte;
ama, zure otoitzak
ni mudatu naute!

9/ Noraino jetxi naizen
pentsatu ezazu,
zure puska naiz baina
hiltzaile bat nauzu.
Zuk gauz hortan kulparik
bate ez daukazu,
belauniko jarrita
negarrez naukazu,
ez dut merezi baina
barkatu zaidazu!

10/ Notizi txar batekin
justizi-maixua:
sei urteko kartzela
daukat abixua;
hementxe purgatzea
dela prexixua.
Ezin jasorik nago
penaren pixua,
etzazu negar egin,
amatxo gaixua!

11/ Orain gaiztakeriak
neregana datoz,
egin ez banituen
hobe nuen askoz.
Hamaika aldiz lurra
bustitzen dut malkoz;
laster amarengana
joateko asmoz,
nere pena guziak
bihurtzen zaizkit poz!

12/ Okerrera hain errez
jotzen du gazteak,
gero etortzen dira
pena-desastreak.
Gogoan izan ama
baten albisteak,
kartzelakoak dira
hain egun tristeak!
Eskarmenta zaitezte
nerekin besteak.

1963-ko martxoaren 19-an

UZTAPIDERI

- 1/ Zorion eta berri on zuri,
Uztapide, bihotzetik,
nere agurrik beroena gaur
lehendabiziko hitzetik.
Jendea ez da aspertzen inoiz
zure izena aitzetik,
Jainkoak gorde zaituelako
gizon harroen gaitzetik.

- 2/ Umil-umila agertzen zera,
ez zaizu gailentzen ezer,
horregatikan hartzen dituzu
hainbeste txalo ta esker.
Begiratuta galde daiteke:
«Gizon horrek zer du, ba, zer?».
Jendea hola txoratutzeko
nonbait badezu zedozer!

- 3/ Amets bat egin zuen Jainkoak
zu sortu zinen orduan,
dohai ederrez osatutzeko
berak nahi zuen moduan.
Hortik pentsatu zer maitasuna
zuregan ixuri duan,
zu bezelako bertsolariarik
ez digu sortu munduan.

- 4/ Beti holaxe jarraituzeko
egiten dizut erregu,
gizon apala eta jatorra
azkar ezagutzen degu.
Bertsolaria harroa bada
beretzat nahiko kalte du,
apika gaurko mundu harroak
apaltasuna maite du.
- 5/ Txapela zuri jartzearekin
a zer arrazoia zuten!
Ai, onenaren alde gaudenoi
zer poza eman ziguten!
Ondo merezi zenuen eta
ederki jarri zizuten,
zorionean eraman zazu
beste berrogei bat urten.
- 6/ Bertsolaritzan txapela inoiz
kentzen badizute behintzat,
zu ez zerala haserretuko
neri iruditutzen zat.
Hori sarritan arrixkoan da,
guk ez dakigu zeinentzat;
gizatasunez baldin balego
txapela beti zuretzat.
- 7/ Bertsotarako zuk baidaukazu
aparteko etorria,
edozein gai da zuretzat berdin
nahiz ona nahiz bihurria.
Halajainetan Jaunak ez zizun
eman talentu urria,
ta ez dedila inoiz agortu
zuk daukazu iturria.

- 8/ Plazarik plaza entzule asko
beren begiak josirik,
zenbait algara eginaz sarri
zu bertsoan ikusirik,
gogor txalotuz zuk lagunari
sartzen dizkiozun zirik...
Umore hortan Jaunak luzaro
gorde zaitzala bizirik!
- 9/ Zahartutzean galtzera goaz
gaztetasun atsegina,
udaberriak ihes eginda
berriz bihurtu ezina.
Uda-azkenak berekin ditu
tristura eta samina,
nahiago nuke nik mila bider
gazteagoa bazina.
- 10/ Mundu hontako urte laburrak
bai azkar dijoazela,
beti pentsatu behar genuke
bestera bagoazela.
Zu bizi zaite Kristoren berdin,
esan zenuen bezela,
berak gordeko dizu zeruan
galdutzen ez den txapela.
- 11/ O, Uztapide, horra bertsoan
nik al dedana azaldu,
zu bezelako gizon jatorrak
hainbat merezi ez al du?
Nik bertso hauek herririk herri
al banituzke zabaldu,
zure oroitza zoragarria
sekula ez dedin galdu!

1963-ko azaroaren 15-ean

AMA

- 1/ Pozaren pozez gai polit honek
kantatutzero narama,
gure adimenak ez du oraindik
gauz ederragorik asma.
Mundu hontako maitasun dana
horrek beregan darama,
lur triste hontan gabiltzanontzat
hitz zoragarria ama!

- 2/ Neri bizia emanta, ama,
zeure zoramen osoan,
lartan goxo bat eman zenidan
harturik zure altzoan.
Gero bularra eranez sarri
lo hartzen nuen besoan,
hamaika amets eder egin dut
nik zure magal gozoan.

- 3/ Seaskatxoan lo nengoela
zabaldu nuen begia,
eta golpetik ikusi nuen
aurrez aurre oskarbia
irrifarrezka, zer ote zen ta,
ama, zure aurpegia!
Huraxe izan zen neretzako
lehendabiziko argia.

- 4/ Nahikoa gazte nintzela nere
amatxo laztana hil zan,
hura mundutik joan zenean
bakarrik gelditu nintzan.
Beste batzuek ikusirikan
gozatzen nola dabilzan,
hutsune hori ezin dut bete
geroztik nere bizitzan.
- 5/ Zu goraltzeko, ama laztana,
ez daukat hitz suaberik,
zu inguruan zeran bitarte
ez da inon nahigaberik.
Ez da izango mundu hontara
sortutako miraberik,
dasta duenik bere amaren
maitasuna baino hoberik.
- 6/ Haurtxo guziak amari deika
pasatzen dute bizitza,
egunsentitik arratseraino
bere ezpainetan zabilta.
Gizon guzion hitz kuttun hori,
ai, eztizkoa balitza!
Ama izaten dugu guziok
lehenengo ta azken hitza!

1964-ko martxoaren 11'n

NERE LAGUN JOSE ALDASORORI

- 1/ Nere zorion anaikorrenak
lehendabiziko agurren,
eta gainera suerte asko
opaturzen diat hurren.
Ongi hagola uste diagu
hain bizimodu xamurren,
heorrek esan behar zer moduz
bizi haizen Albizturren.

- 2/ Graduan igo egiten duk bat
ordenatutzean apaiz,
gu bezelako lagun eskaxak
hobe ahaztutzea garaiz.
Aztarrenikan ez duk bialdu
oroituko hintzena maiz,
ez nian uste baina, laguna,
gurekin laster ahaztu haiz.

- 3/ Zer pasatzen den jakin artean
sosega ezinda gaudek,
gaurko munduan gazte batentzat
erorbide asko zeudek.
Hi bezelako gizonak aurrez
jakingo zetik gauz hauek;
izurra gaituk, norbait gu baino
aurreagokorik badek.

- 4/ Motorra edo zerbait izan duk
oso itsutu hauana,
eskerrik asko konfesatzeko
lizentzirik ez dekana.
Hainbat denbora lagun batzuei
idazteko bertso bana...
Besteak beste, jakingo al duk
lehenengo laguna dana.
- 5/ Ohitura zaharra jarraituz gelan
elkartu gaituk alper bi,
reglamentuan sartu ezinik
ez gabiltzak errezegi.
Agurtutzero goazek, lagun,
luzatu gabe gehiegi,
lehen bait lehen honuntz agertu hadi,
bitartean ondo segi!

1964-ko irailaren 15-ean

**NERE ANAI JUAN MARIAREN
HERIOTZ EGUNEAN**

1/ Mila pasata bederatzirehun
hirurogei ta bostean,
abenduaren bederatzian,
arratsaldea hastean,
negarrez nago nere anaia
hil zorian ikustean,
hemen hamaika pasa duk eta
har zak pakea bestean.

2/ Bostak aldean bere arima
entregatuaz Jaunari,
gorpua hilik gelditu zaio
lurreko arren janari.
Ondo merezi dekan zerura
gozatutzera joan ari,
nik hala opa diat bihotzez
ta laster arte, Juan Mari!

1965-ko abenduaren 9-an

NERE LAGUN INAZIO ZABALETARI

- 1/ Nere lagun bat Ondarrabira
golpetik joan zait eta,
hutsune horrek utzi nau bertan
dena tristuraz beteta.
Bion artean, ai, zenbat jolas
eta zenbat berriketa!
Egunen baten oroituko haiz,
Inaxio Zabaleta.

- 2/ Ni ez ninduan Deba aldera
etorri hain animoso,
eta orduan hire laguntza
premizkoa nian oso.
Beti hengoen umoretsua
eta hain hintzen bromoso,
hire kontura egin nizkian
hamaika algara gozo!

- 3/ Nik orain hemen heldu beharra
hik utzitako lanari,
horretarako laguntza pixkat
eskatu behar Jaunari.
Opa dizkiat herri polit bat
eta suerte ugari,
hijoan herri polit horretan
zoriontsu izan hadi.

1968, azaroa

ZUBELTZU ZAHARRARI BERE OMENALDIKO EGUNEAN

- 1/ O, Itziarko izar argia,
ondo hartuko al duzu?
Bertsolarien gorantza non-nahi
ta baztertuta zeunden zu.
Denak gurekin ahazten badira
nor ez da jartzen goibeltsu?
Zure anaien omenaldi bat
merezi zenun, Zubeltzu.

- 2/ Errege egun alaigarria
hortarako berezia,
ea eskeintzen dizugun denok
omenaldi merezia.
Zure bizitzan hamaika txalo
plazetan irabazia,
ai, egun haiek gogoratzeko
izan dedila guzia.

- 3/ Lehengo batean esan zidazun:
«Ez nago oso jaxua.
Larogei urte hurrean ditut,
gorputza berriz gaixua.
Pazientzian itxogin behar
hartu arte abixua!».
Nik burumakur agurtzen zaitut,
Uztapideren maixua.

- 4/ Azken kabia eskeini dizu
Debako Lasao-haundik,
atseden bila etorri zinen
neronek ez dakit nondik.
Euskal Herriak hainbat mesede
hartu zituen zugandik,
nik zure partez esaten diot
bizi zerala oraindik!

1969

DEBAKO HERRIARI

- 1/ Munduan zehar badira leku
liluragarri, ederrak,
Egilearen eskuak hortan
ez ziren izan alperrak.
Irten da nonnahi ikusten dira
zoragarritzko bazterrak,
geu ere ezin keja gindezke,
Jaungoikoari eskerrak.

- 2/ Ondarrabitik Mutrikuraino
paraje harrigarriak,
itxasoari lapurtutako
hondartza eta herriak.
Frente eman ez, beraren aurka
horma bezela jarriak,
euskaldunentzat moldatutako
kaiola zoragarriak.

- 3/ Itxas ertzeko herrixka baten
bizi naiz aspaldi hontan,
Kantabriako txoko goxo bat
erri baten besotan.
Goitikan behera begiratuta
pentsatutzen dut askotan,
politagorik ote dagoan
txikia izatekotan.

- 4/ Debako herri maitagarria,
agurtzen zaitut pozikan,
nik ez nuke nahi hemen agertu
zuk ez daukazun gauzikan.
Nere burura ez baida sortu
lagundutzea baizikan,
baina hortako ez dut aurkitzen
merezi duzun hitzikan.
- 5/ Errio batek jira guzian
miazten dio eskina,
ifar aldera hondartza goxo,
txukun eta atsegina.
Erdi-erdian atsedeen toki
zumardi edo jardina,
paradisoak zuen pusketa
onenarekin egina.
- 6/ Mendi ta baso eder askori
ematen die sorbalda,
bere ondoan aukera duzu
bai ordeka ta bai malda.
Mendira joan nahi bazenduke
edo itxasora igoal da,
dena bertantxe daukazu eta
ederragorik bai al da?
- 7/ Zorionean itxasoa du
bere lagun eta etsai,
negu partean haserre dago,
udaran berriz hain alai.
Eguzki pixkat hartu nahi denok
hondartzan etzanda lasai,
amets gozoak eginez gaude
udara etortzeko zai.

- 8/ Itxas ertzeko herri politez
aukeramena daukazu,
eta nora joan ez dakizula
igoal egongo zera zu.
Dударik ere ez zazu egin
umerik baldin baduzu:
lasai igaro ta jolasteko
Deba aukeratu zazu.
- 9/ Andra Mari ta San Roke dira
herriko festa egunak,
aspalditikan geure zaindari
aukeratu ditugunak.
Dantzatu eta umore ona
dibertitzeko nahi dunak,
non jostatua aurkituko du
etortzen den euskaldunak.
- 10/ Sarri entzun dut: «Txori gaiztoak,
kaiola polita baina...».
Ezin sinestu egia denik
jende gaiztoen mingaina.
Lurrean zeinek hartu lezake
ontasunari tamaina?
Zuek onetik badaukazute
beste edozeinek haina.
- 11/ Gipuzku hontan herri politak
dirade bostetikan lau,
baina halare itxas ertzeko
giroak tiratutzen nau.
Bihotzak ditu gure buruak
ez dituen hainbat arau,
horretxegatik maitatuzten dut
kaiola zoragarri hau!

- 12/ Aurpegi txuri polit batean
zimur bat ez da atsegin,
eta akats bat agertutzean
ezin nezake hutsegin.
O, debatarrok, euskeraz denok
pixkat gehiago hitzegin,
hain kaiol eder maitea zeru
antzekoa izan dedin!

*1969-ko maiatzean
Zeruko Argia, 1972-V-14*

BASERRITARREN ETORKIZUNA

- 1/ Radiotikan gaur egona naiz
gauz xebreak entzuten
hemen agertu nahi nizueke
zer esplikatutzen zuten.
Baserritarrei zer makina ta
zer gauz komeni zaizuten,
buruz jokatzan duzutenontzat
zer etorkizun duzuten.

- 2/ Hain da erreza besterentzako
mingainari eragiten,
jakin nahi nuke nor zen horrela
ari zena hitzegiten.
Baina gauza bat ez da izango
hain zaila ere jakiten:
bera kalean biziko dala
ez dut dudarik egiten!

- 3/ Guk badakigu buruz jokatu
dutenak non bizi diran,
beren kabia bilatu zuten
herri edo kalejiran.
Nola arraio kontseju onak
ematen hasi segiran?
Maltzur halenak, heurak zergatik
kaleratu ote ziran?

- 4/ Baserritarren etorkizuna
nork ikusten du hain errez?
Hortik aldegin duten guziak
ez dira joan alperrez.
Lurretik bizi behar duenak
eguzkiaren eskerrez,
nekea pranko izango du ta
beste ostean ezerrez!
- 5/ Txingorra dela edo izotza
hor dabiltz trantze estutan,
kosetxa dena bertan galduko
ote zaien arrixkutan.
Euskal Herrian egualdi ona
hain dugu egun juxtutan,
zeinek jartzen du etorkizuna
egualdiaren eskutan?
- 6/ Beste biderik ez dute eta
pinua sartzen dabilta,
zelai ta soro denetan jantzi
zaie sasi ta almitza.
Makinak ere erosi nai ta
gero ordaintzen langintza,
negargarria ez ote dugu
nekazarien bizitza?
- 7/ Protesta ordez kalean botaz
esneak alperrik galtzen,
arakinari txekor ederrak
erdi prezioan saltzen...
Engaino gabe inork ez die
aterik inon zabaltzen,
ni lotsatuko nintzake hoi
etorkizuna azaltzen.

- 8/ Radio eta egunkariak
esaten dute irainez,
baserritarren pazientzia
eginda dagola gainez.
Kalean majo bizi geranok
hauxe daukagu ordainez:
kontseju onak nonnahitik eta
laguntza berriz mingainez.
- 9/ Orain hobeki bizi direla
zebiltzanak juxtu-juxtu,
mejora batzuk ingura arren
ezin da gehiegi poztu.
Etorkizuna badagoala
nahizta orain bizi estu...
Agian hola gerta daiteke
baina ezin dut sinistu.
- 10/ Kale gorrian mixeria ta
gerra dagola nagusi,
eta gainera gazteentzako
hainbat ohitura itxusi.
Gizonok elkar engainatzeko
badegu mila astruzi,
behin kaleratu denikan ez dut
berriz bihurtzen ikusi.
- 11/ Hain etorkizun tristea dago
begira mila aldeta,
asko dijoaz kale aldera
hartuta beren maleta.
Gaur zertarako balio duen
txukun-txukuna gordeta?
Bakazioak pasatutzeko
zoragarritzko txaleta!

12/ Euskal Herriko baserrietan
sortu zeraten gazteak,
etorkizuna zuentzat dakar
eskolea ikasteak.
Nahizta nahigabe haundia eman
baserri zaharra uzteak,
al duzutenok azkar aldegin
hartuta zeuen trasteak.

13/ Baserrientzat gerta daiteke
noizbait epoka hobia,
baina munduko martxa izaten
dugu erruki gabia.
Zure azkena ikusi eta
hartzen dedan nahigabia!
Nolanahi ere eskerrik asko,
o haurtzaroko kabia!

14/ Bide okerra jarri nezake
bide zuzenaren ordeaz,
eta norbaitek juzga lezake
askoz ezaguera hobez.
Baserritako nekazariei
eskatzen diet faborez,
garbi agertu dezatela nik
arrazoi dedan edo ez.

*1970-ko garagarrila
La Voz de España, 1970-VII-3 eta 4
Zeruko Argia, 1970-VII-19*

FRAILEAK ESKEAN

- 1/ Lehengo batean fraile haundi bat
nere etxeruntz arrima,
pentsatu eta bakarrik jartzen
zait triste nere anima.
Nere kastako gizarajoak
nola ez bada estima?
Bihotz ondotik ezin zait joan
hark eman zidan lastima.

- 2/ Zein ote nuen atean deika
egoardiko jatorduan?
Tantaia bezain gizon haundi bat
zegoen ate onduan.
Bixitatzeko ordua ere
nola ondo zaintzen duan,
horra orduko pentsamentuak
sentitutako moduan.

- 3/ Nola sinistu haren jokera
gizon hura ikustean?
Hura zirrara, zer eginkizun
zekarren erakustean.
Esku batean medaila batzuk
eta poltsa bat bestean,
tunika luze zikin batekin
aterik ate eskean.

- 4/ Eskale batek atean beti
errukarrien abotsa,
baina fraileak atera zunak
zirudien trumoi hotsa.
Limosna on bat eskura nion
aterata nere poltsa,
berak ez dakit zer pentsa zuen
baina nik hartu nun lotsa!
- 5/ Bi metro bazen luzean eta
hura zen hura sasoia!
Buruarekin ia jo zuen
sarrerako ate goia.
Konbentuetan holako batzuk
eukitzea arrazoia,
etxeko lanak eragiteko
ai zer nolako morroia!
- 6/ Itxuraz haren osasuna ta
bixtan ez zuen ajerik,
sekulan santa ez dut ikusi
horrelako eskalerik.
Deskuido baten bazkaldutzeko
eman banion biderik,
haren sabela betetzen, jaunak,
izango ziren komerik.
- 7/ Legoak edo ez dakit nola
deitutzen zaien hoieri,
esklabo planta gizarajoei
nonnahitik zaie ageri.
Gizonok elkar oinperatzea
tristeia deritzat neri,
gaur egunean konbentuetan
ez dago hainbat mixeri.

- 8/ Limosna eske korritu behar
baserri eta kaleak,
eskerrik asko Euskal Herrian
geran erruki zaleak.
Diferentzirik asko ez dute
esklabo ta eskaleak,
ohitura hori kendu zazue,
o bihotzeko fraileak.
- 9/ Pertsona batek nola daiteke
bestea hainbat zapaldu?
Akaso zuen fundadoreak
hori erakusten al du?
Buru direnak etorri bitez,
ez mendekorik bialdu,
ez al litzake askozaz hobe
ohitura ez dedin galdu?
- 10/ Gizonok elkar menderatzeko
badugu hainbat talentu,
konbentuetan zer gertatzen den
badet nahiko eskarmentu.
Mendeko asko sufritzen eta
goikoak berriz kontentu,
bertan bizi az probatzen dira
zer diren hainbat konbentu.
- 11/ Triste samarrak ikusten ditut
konbentutako historik,
munduan ez da gaur eskalea
baino gradu bajugorik.
Batzuek majo, besteak berriz
ia lurrera erorik,
anai artean ba ote dago
hortarako deretxorik?

12/ Legoak sarri astindu behar
konbentutako baratzak,
buru direnak mantendutzeko
ateraz izerdi latzak.
Mendekoentzat tokatzen dira
lan asto eta garratzak,
hemen jendea nola bizi den
daki etxeko elatzak.

*1970-ko agorra
Zeruko Argia, 1970-XI-15*

KARNETIK EZIN ATERA

- 1/ Baserritar bat aurkitu nuen
lehengoan kale ertzian,
o zenbat kontu gizarajoak
bere barrena lehertzian!
Lasai aldi bat hartuko zuen
pena denak agertzian,
bertsoen bidez esan nahi ditut
zergatik eta zer zian.

- 2/ Bere ahotik entzun nuena
noa bertsoz esatera,
txopertzarako karneta ezin,
jaunak, inola atera.
«Zazpi biaje eginak ditut
suspense eramatera,
neure burua bota behar dut
leize zuloren batera.

- 3/ Kotxe eder bat erosi nuen
ta, zorionez beteta,
urrea balitz bezela hantxe
mandioan dut gordeta.
Orain inola ezin atera
zorigaiztoko karneta,
eta lan gaitzak izango ditut
erderaz ez dakit eta.

- 4/ Erdel hitzeri esanahi hutsa
kasi ez diet igertzen,
nere buruan sartzeko ez da
xixtemarikan agertzen.
Dena memoriz ikasi behar
burua ez bazait lehertzen,
baina galdezka hasitakoan
ez diet tutik ulertzen.
- 5/ Ezezaguna dedan hizkuntzan
injeniero denak mintz,
hizketan hasten diren orduko
ezin ulertu hainbat hitz.
Nere esku ta barren guziak
ikara batean dabiltz,
bildur gehiago ezin eraman
gerrara joango banintz.
- 6/ Nahizta seinale denak eraman
buruz ongi ikasita,
han aldatuta aurkitzen dira
paperak letzen hasita.
Eta euskerara ezin itzuli
garbi asko ikusita,
hau da mixeri xelebrezkoa
Euskal Herrian bizita!
- 7/ O, euskeraren gordelekuok,
horra zer atarramentu!
Hamaika aldiz guretzat zenbat
horrelako eskarmentu!
Euskera gorde degula eta
egon gindezke kontentu...
Gero noranahi joan behar eta
ez buru ta ez talentu!

- 8/ Jakintsu denak jardun duzue
gu nolabait konbentzitzen,
gure hizkuntza galduko dela
ez badiogu eutsitzen.
Hasi zaitetze baserritarrei
pake-pakean utzitzen,
hobe duzue hor goiko hoiei
euskera erakutsitzen.
- 9/ Nere umeak, Jainkoagatik!,
erderaz ikas bezate,
nere antzera beti ibili
ez ditezen atez ate.
Kontsejatzaille jakintsu hoiei
ez kasorik egin bate,
bestela behintzat hamaika burla
sufritzekoak zerate!».
- 10/ Arrazoi zuen edo ez neri
jardun zitzaidan galdezka,
hura gehiago ez zijoala
hor gora kontseju eska.
Hitz hauetantxe agertu zidan
bere bihotzeko kezka:
«Estu aldian euskaldun eta
pobreen lagunik ezta».
- 11/ Haren samina eta arnasa
irtetzen zuten barrendik,
lezio eder harrigarri hau
hartu nuen harengandik.
Beraz, zergatik ez gera hasten
nagusi daudenengandik?
Injeniero euskaldunikan
ez al da egin oraindik?

12/ Galdera triste penagarri hau
egiten dut hor goruntza:
Ofizialki dauden gauzetan
zergatik ez bi hizkuntza?
Kanpotar denak nagusitzara
heldu zaizkigu honuntza,
eta azkenean horra: geuk heurai
eskatu behar laguntza!

1971-ko lorailak 11

EGUN GOIBELETAN

- 1/ Ametsak egi bihurtu naita
ezin ditut nere kasa,
zorionaren bila nabil ta
kalbario latza pasa.
Horretarako neu bakarrikan
ni nola ez naizen gauza,
o, Jaungoikoa, bidal zaidazu
hor goitik zure Arnasa!

- 2/ Aiton elbarri, gazte indartsu,
eta umeak ere bai,
denok bizitza pasa nahi dugu
zorionsu eta alai.
Mundu hontako itxaropena
hauxe da aste eta jai,
hemengo egun labur-tristeak
zorionean pasa nahi.

- 3/ Herriko festak noiz iritxiko
bihotz guziak pozetan,
nola dantzatu eta jolastu
urtebetez ametsetan.
Nik berriz ez dut ongi ematen
holako jolas klasetan...
Zoritxarrean ametsik ezin
egin holako gauzetan.

- 4/ Gazte multzoa saltoka dator,
umeak badira mila,
o, Jauna, hau da zarata eta
jendearen ixkanbila!
Ni berriz bakar-bakarrik noa
burumakur ta ixila,
jendeak ez du usteko baina
ni ere pozaren bila!
- 5/ Gazteak dantzan dabilta eta
zenbat algara-garrasi!
Nere barrenak ia lehertuan
berdintsu nahi luke hasi.
Begietatik negar malkoak
ixuritzen zaizkit kasi,
gaztearoan dibertitutzen
nik ez bainuen ikasi.
- 6/ Gaur horren alai ta bihar hoi
bihotza ezin piztu da,
izotz gogorak neguan lora
zimeltzen duen modura.
Mundu hontako alaitasunak
bere anai du tristura,
o, zein lekutan aurki daiteke
amaitzen ez den poz hura!

1971

AGURE BATEN ERRESUMINAK

- 1/ Agure baten erresuminak
ipintzen ditut korrika,
ustekabeen gaur entzun baidut
garizumako platika.
Bertso batzutan ez dakit nola
esandakoa esplika.
Dena ez diot ulertu baina
hura zen erretolika!

- 2/ Garai bakoitzak gauz xebreak
erakusten dizkigu ta,
gaurko jendeak gauza bategaz
lau aldetara disputa.
Gazte askoren zoro-erterak
lotsa ematen digu ta,
ixilik egon behar derrigor
zer esan ez dakigu ta.

- 3/ «Gaurko munduak jende askori
zenbait duda sortzen dizka,
ikusirikan hemen dabilen
jaleoa eta drixka.
Lehenago egi osoa zena
gaur egia da erdizka,
zalantza baten jarri digute
seguru geneukan pixka.

- 4/ Lehenago dena pekatu zen da
gaur berriz ez da ezerre,
sermolariak jartzen ziguten
infernua aurrez-aurre.
Hereje ziren gizarajoak
inkisizioan erre,
lege haiekin zintzoagoak
izango ginake gaurre.
- 5/ Zine ta dantza ta itxas-ertzak
zizkiguten debekatu,
garai artako gazteentzako
guziak ziren pekatu.
Munduko gozo ta kutiziak
guk gorputzari ukatu,
zeinek lezaken bizitza hura
gaurkoarekin trukatu!
- 6/ Bestetik dago sexual gaia
jarrita hain beldurgarri!
Gaurko gaztedi honi neurria
zeinek lezaioke jarri?
Minifalda ta bikini hoiek
nondik dituzte ekarri?
Larru gorrian dauden edo ez
ezin inola igarri.
- 7/ Moda berriak milaka datoz,
zertarako galtzen utzi?
Berez gauz txarrik ez omen da ta
dena lasai erakutsi.
Aiton-amonak ta gurasuok
ez dugu sufritzen gutxi,
baina alperrik, neurri batean
gazte hauei zeinek eutsi?

- 8/ Gure alderdi honetan ere
ene zenbat ixkanbila!
Omen dabilta euskera edo
hizkuntza-batasun bila,
eta batasun hori lortzeko
jakintsu ta maixu pila...
Nik ez dakit zer nahi zuten baina,
jaunak, hauxen da tortila!
- 9/ Ikastoletan ere ez dugu
hain etorkizun alaia,
iritxi omen zaigu honuntza
ateismoaren garaia.
Relijioa izan da beti
herri hontako sustraia,
ta andereino mukizu batzuk
daukate jorratu nahia.
- 10/ Ikusten duzu nola daukadan?
Lau aldetatik zalantza.
Ta zeinek jakin geroak noruntz
egingo duen balantza?
Garbi esanda, arras galdu dut
geroaren esperantza,
gure herriak hartu dulako
Babelko dorrean antza».
- 11/ Hainbat jokera zoro al dugu
herrian eta elizan?
Zuen garaiko txukuntasuna
jakitea komeni zan.
Baina mesedez ez zaitetz jarri
kondenatzaileen gisan,
ilunaldi ta epoka txarrak
ez al dira beti izan?

12/ O, antzinako aiton-amonak,
harriturik naukazute;
zuen garaiko bizimodua
hain txukuntzat daukazute.
Zer esan ere ez dakidala
gaurkoan uzten nazute,
baina arrazoi duen edo ez
zeuek juzgatu zazute.

1972-ko martxoaren 25-ean

ZAHARTZAROA

1/ Zer tristea den, jaunak,
gizona zahartzea,
hirurogei urtetan
barrena sartzea,
ezinaren mendean
derrigor jartzea,
berriro ume baten
itxura hartzea!
Orduan ikusten da
zer den baztartztea.

2/ Zein azkar joaten den
gazteak duana,
barrengo bizi-poza
ta jolas afana!
Tristura bihurtzen da
zahartzaroan dana,
eta hau ez da neronek
asmatu dedana,
baizik agure bati
entzun diodana.

- 3/ Gazte txoroentzako
horra abixua,
denak sinistutzea
ez da prexixua.
Ezperientziduna
da gaurko maixua,
honela mintzatu zait
agure gaixua:
«Zuk ez dakizu zer den
urteen pixua!».
- 4/ Esan daiteke atzo
ume bat nintzala,
eta gaur ezin jaso
urteen itzala.
Mundu hau zer den ongi
kontura gaitzala,
zeinek sinistuko du
hola gabiltzala,
bizitza hain aguro
pasatutzen dala!
- 5/ Hamalau urterekin
tailer baten hasi,
bertan bizitza dana
igaroaz kasi.
Izerdi ta nekea
alkarrekin nahasi,
han sufritzea zer zen
genuen ikasi,
gure denboran ez zen
gaur haina fantasi!

- 6/ Erromeri ta festak
nonbait aitatzean,
juergarako ez ginen
gelditzen atzean.
Dantza ta lekaioka
zoroen antzean,
ai!, urte eder haiek
orain oroitzean,
zer tristura sentitzen
dedan bihotzean!
- 7/ Lan astoetan lehertzen
sasoi onenean,
gero seinalatzen da
gorputz barrenean.
Horrela gertatutzen
zaigu gehienez,
erretiroa eman
azken-azkenean,
dibertitzeko kapaz
ez geradenean.
- 8/ Gorputza baldartuta
mina ikusterik,
horrelakorik ez da
pentsatzen gazterik.
Esan gabe ez dago
hauze sinisterik:
lehen osasunez eta
indarrez beterik,
eta orain ez daukat
ajea besterik.

- 9/ Arpegi legunean
azala ximurtu,
gorraizea galanta
ta bista laburtu,
katarroa ugari,
eztula samurtu,
neguko hotzarekin
zeharo bildurtu...
Hala ere mundu hau
ez dut nahi agurtu!
- 10/ Ankak pixutu eta
burua arindu,
gure gorputzak beti
nonbaitean min du.
Zer egin behar dugun
besteak agindu,
ta gazteak serbitzen
behar alegindu...
Nahi ez badugu ere
gureak egin du!
- 11/ Bizitza luzearen
berezko emaitza,
zahartzaroak guretzat
dakarren ekaitza.
Mundutarrok sendatu
ezin dugun gaitza,
eta zertarako jo
ostikoz arkaitza?
Gogoz onartzea da
gizonon garaitza.

12/ Hemen amaitutzean
sasoï urrezkua,
indarrak joatea
gauza bidezkoa.
Zahartzaroa gehienok
derrigorrezkoa,
saia gaitezen bada,
emanik eskua,
alkarri egiteko
zorionezkoa!

1973-ko uztaila
Zeruko Argia, 1972-XI-19

GAZTE BATEN BIZITZAK ZER BALIO DUEN

1/ Lehengoan zer gertatu
zen gure herrian,
bertso batzutan nago
esan beharrian.
Lau gazte leher-zorian
kotxe ederrian,
bide gurutze baten
oker okerrian...
Bat hilda gelditu zen
bide bazterrian.

2/ Ez nioa albiste
hauek zabaltzea,
baizik sentitu nuen
pena azaltzea.
Gaur gazte bat etxetik
lasai bialtzea,
ez al da zeure puska
betiko galtzea?
Ai, zer penagarria
horrela hiltzea!

3/ Indar eta osasun
guziak berekin,
zernahi sobrante zeukan
hogei urterekin.
Kolpean dena galdu
heriotzarekin,
eta guk ezin ezer
egin berarekin,
oroituztea baizik
Jaungoikoarekin.

4/ Laguntzailea franko
bazuen onduan,
gizon jakinduriak
zer egin orduan?
Hura azken tristeia
jaiota munduan!
Ikusitako denok
hau esan genduan:
gazte baten bizitzak
zer balio duan!

5/ Nor ez zen geldituko
han errukituta,
gorputz bat ikusirik
dena txikituta?
Hara zer utzi nindun
oso harrituta:
ahotikan odola
ezin geldituta,
errezatzen hasi zen
eskuak bituta.

- 6/ Zure aita ta amak
ongi merezia,
maitasun indarraren
lehenengo hazia.
Bular esnetsuetan
xurgatuz hazia,
iturri gozo hortan
piztu zen bizia,
horra: zeorren kulpaz
akabo guzia!
- 7/ Hain zegon irripartsu,
hain zegon alaia,
nonbait gozatutzeko
azkenengo jaiia!
Kotxe zoroarekin
dibertitu nahia,
konturatu gaitezen
orain da garaia:
bizitza da prezio
gabeko doaia.
- 8/ Bizitzeko emanik
Jainkoak ahalmena,
guk gordetzeko behar
genuke kemena.
Osasun, zoriona,
eskuetan dena,
eta errez galtzeak
ematen du pena,
munduko edertasun
denetan onena.

*1972-ko azaroan
Zeruko Argia, 1973-IV-22*

GAZTE BATEN ERRENKURAK

1/ Neska batekin nabil
hamabi urtean,
ia erretiroa
ez du apartean.
Ezkontzarekin behintzat
ez naiz suertean,
nonbait pasa beharko
dugu bitartean,
bizileku bat hemen
erosi artean.

2/ Ai, zenbat buruhauste
pixu erosteak,
ta gero behar diren
mueble ta trasteak!
Geroarekin ez du
pentsatzen gazteak,
ez du balio itxu-
-itxuan hasteak,
konturatu zaitezte
nerekin besteak.

- 3/ Zortzi mila pezeta
ileko jornala,
kontuak aterako
ditut berehala.
Gutxienez erdia
mantenua dala,
gero jaztea eta
gastuak dirala,
sobratutzen den pila
ez duzu makala!
- 4/ Gaur pixu batek duen
prezio-tamaina,
ez da langileentzat
jarri, alajaina.
Beste gastuak eta
ileko ordaina,
ezkonduko nintzake
pozik asko baina...
hortarako behar dut
Onassis-ek haina.
- 5/ Zenbat paseo triste
herriaren bueltan,
animatutzen ginen
goiko errebueltan.
Andregaija noiz dagon
goibel edo altan,
nik antzematen diot
arpegiko plantan,
ez gera ezkonduko
ezagutu paltan!

- 6/ Lehengoan pasatu dit
azken abixua:
aurten ezkonduzea
dela prezixua.
Arima ondoraino
sartu zait izua;
konprenditu zaidazu,
andregai gaixua:
baina nola erosi
behar dut pixua?
- 7/ Etxera ezkontzera
nahi naute behartu,
gurean kanpokorik
ez daiteke hartu.
Gurasoak edadez
nahikoa zahartu,
petralkeri asko ta
jenioa txartu...
Infernu hontan nola
aingeru bat sartu?
- 8/ Hartu zazu erraina
gona motz-motzakin,
igual jarriko zaizu
modako galtzakin...
Gero berak nahiko du
xoxaren poltsakin,
laster joko lioke
buruan pertzakin
nere amak, dituen
bibote beltzakin!

- 9/ Baldin diru gutxiaz
baduzu kartera,
diru gabe ez zera
joango apartera.
Gauz denak garestitzen
urtetik urtera,
sartu baino lehenago
infernu batera,
bizimodua zer den
kontuak atera!
- 10/ Soltero gaudenean
zenbat tripakara!
Gero andrea: diru
gutxi patrikara.
Gehiegi bete gabe
askotan ijara,
ezkontzari serio
emateko kara,
pentsatzeak bakarrik
sartzen du ikara.
- 11/ Arkitzen ez duenak
gaur pixu aukera,
derrigor bizi behar
ijito legera.
Bestela behintzat beti
gora eta behera,
asmatu ezinikan
geroko jokera,
azkenean bertantxe
ajatuko gera.

12/ Oraindik lasai nago
mutilzar ordeko,
igual ni hazitako
bainaute gordeko.
Familia hazita
hainbat edadeko...
Gizon bat hartzen badu
bildurak mendeko,
mutilzar segurua
eternidadeko!

13/ Maitasuna lehenengo
biak elkartzeko,
gero diru mordo bat
hori indartzeko.
Horixek behar dira
bizitzen jartzeko,
eta ez dut esaten
bildurra sartzeko,
baizik behar dutenak
gogoan hartzeko.

14/ Edadean sartuak
badu hau ta beste,
zergatik ezkontzeko
pentsatu hainbeste?
Urteetan goraka
baldin bazoazte,
zaudeten bitartean
indartsu ta gazte,
zahartu baino lehenago
ezkondu zaitezte!

*1973-ko martxoaren 23-an
Zeruko Argia, 1973-IV-25*

NERE HAURTZAROKO OROIPENAK

1/ Izazpi mendiaren
magal-magalean,
Aranburu-etxeberri
leku seinalean,
ni munduratu nintzen
kabi apalean.
Geroztik saiatu naiz
ni eginalean,
leku bat izateko
mundu zabalean.

2/ Hamar senide ginen
mundura sortuak,
baina zortzi gaur arte
bizia lortuak.
Sasi-txitak bezela
azkar pizkortuak,
laguntza asko gabe
ginen gogortuak,
laster argitzen dira
hola zigortuak.

- 3/ Barrengo maitasunez
nahi nituzke aita,
ni babestu ninduten
ama eta aita.
Pobreak izan arren
nituenak maita,
zerura joan ziren
Jaunak hala naita,
munduko izatea
bi minutu baita!
- 4/ Gogortu nintzanean
eskolara hasi,
bidean behar nuen
ordu bete kasi.
Ittula edo lana
piperrekin nahasi,
egualdi txarrak ere
joaten galerazi...
Baina neretzat haina
nuen nik ikasi.
- 5/ Hantxe egin nituen
nik jolas gardenak,
oraindik memorian
bizirik daudenak.
Ametsetan datozkit
hango oroipenak,
zorion printza eta
bihotzeko penak,
urruti joan arren
ahazten ez direnak.

6/ Gaztain, lizar eta altz,
aritz eta pago,
inguru hartan hainbat
baziren lehenago.
Orain pinu beltz hori
besterik ez dago.
ikusiaz bakarrik
negar malkoz nago,
nere ameskabia
betiko akabo!

7/ Hango pagadi eder
zelai eta baso,
arbasoek antxina
zituztenak jaso.
Guk ez genien egin
behar hainbat kaso,
baizik aldatzen edo
botatzen eraso...
Pena izango dugu
noizbaiten akaso.

8/ Mendi tartetik diz-diz
keinu eguzkiak,
eta goizean goiztar
txori abestiak,
basabeiak marruka,
ujuka piztiak,
belarrientzat ziren
hain kantu eztiak!...
Han dastatu nituen
zorion guztiak!

- 9/ Zugaitzak udaberriz
jazten ziren ostoz,
erleak loraz-lora
ankak ezti gozoz.
Txoriak kabitxoak
moldatzeko asmoz,
lumaz ta goroldioz
kargatuta datoz...
Hoiiek ikusi eta
o, Jauna, zenbat poz!
- 10/ Negu partean berriz
elur erasoak,
zuri-zuri jartzean
mendi ta basoak.
Ezertxo ez jazteko
umetxo gaixoak,
mantarrak belaunera
alanbrez jasoak...
Denak goxatzen zitun
supazter goxoak.
- 11/ Neguko bihotzean
txori denak mutu,
txantxangorria horman
ezinik izutu...
Pixka bat berotzeko
enbor zaharra sutu,
umetan hoiiek denak
nitun ezagutu,
eta hantxe sortua
zergatik damutu?

- 12/ Aurkitutzen nituen
hainbat txori kabi,
ta elur-aztarnetan
makinabat erbi,
gau-ilargitan bota
ere bat edo bi.
Geu bizitzeko ziren,
aitortzen dut garbi,
hola egiten zigun
Jaunak guri argi.
- 13/ O, nere haurtzaroko
ametsen barruti,
gizaldietan hortxe
iraun zazu zuti!
Bizitzen hortxe hasi
nintzena bildurri,
gero hala behar ta
joan nintzen urruti,
baina nik ezin zaitut
kendu zu buruti.
- 14/ Orain bakardadean
han dago ixila,
ez du gure garaian
hainbat ixkanbila.
Agurtutzen dut nere
seaska umila,
eta luzaro zutik
jarraitu dedila,
neri jo bitartean
heriotz ezkila!

LENGO EGUNAK GOGOAN

- 1/ Zorioneko zure liburu
Lengo egunak gogoan,
ez dakit nola nere eskutan
eroria zen lehengoan.
Ezjakin batek idatzitzeko
hain ongi nola dagoan,
zu goraltzeko ez dut arkitzen
hitzikan nere ahoan.

- 2/ Eginkizun bat hartutakoan
ez zera txantxetan hasten,
zenbat ordu ta buruauste zuk
liburu eder hau jazten!
Eskolan ere denbora asko
ez zendun pasa ikasten,
zuk non arraio ikasi zendun
horren ederki idazten?

- 3/ Liburu honi egin zaiogun
merezi duen arrera,
harrigarria dalako beraz
zuk egin dezun karrera.
Oraindik ere begira zangun
denok ixpilu zaharrera,
lotsatu egin behar genduke
azaltzen zure aurrera.

- 4/ Zure euskera ez datorkigu
gaur jartzen diguten eran,
herri soilaren esaera ta
hizkuntza duzu aukeran.
Kontseju onak ez dira jartzen
inorentzako galeran,
ura garbia nahi duzutenak
iturri hontatik eran.
- 5/ Alajainetan, Uztapide hau
ez da hortik honakoa:
bertsolaritzan paregabea
ta idazle modakoa.
Zeinek sinistu edade hortan
zegoenik holakoa?
Esaera da: berez behar du
izan Billabonakoa.
- 6/ Gazte haroan probatu zendun
makinatxobat langintza,
lehendabiziko morrontza eta
gero berriz ikazkintza.
Zuk diozuna: «Orain ezin ni
jakintsuen mailan mintza;
maixu trebea izango nintzan
eskolan izan banintza».
- 7/ Txikitandikan lan gogorretan
ondo zaildua, jakina,
Euskal Herriko baso latzetan
hamaika txondor egina.
Nola ez dugu estimatuko
horrelako ikazkina,
bertsotan eta idazten ere
ederki asko dakina?

- 8/ Horra noraino iritxi zeran
ezer ikasi gabea!
Zu zerekasa egin zerade
jakindurian jabea.
Garai batean ikazkina ta
orain idazle trebea,
eskolan ere ezin ziteken
egin karrera hobea.
- 9/ Zure egunak ere ez ziren
izango oso errezak,
ondoren hoiek ekartzen ditu
munduan osasun ezak.
Guri bildurra ematen digu
garai hartako pobrezak,
baina batzutan ongi letorke
kentzeko gure lainezak.
- 10/ Liburu hortan ez datorkigu
umiltasuna besterik,
haundinahi eta harrokeririk
ez pentsatu ikusterik.
Orri hoietan ez baizigun nahi
besterik erakusterik,
berez haundia danak ez dula
behin ere haundi usterik.
- 11/ Osasunean zauden bitarte
liburu berria egin,
zure euskera garbi horretan
berriro ere hitzegin.
Gure artean zabalduzkeo
egingo dugu ahalegin,
zure oroitzua maitagarria
sekula galdu ez dedin.

12/ Eskabide hau egingo nuke
nere azken agurrean,
urteak azkar joaten dira
ta heriotza hurrean.
Bere irudi bat eukitzeko
geure begien aurrean,
monumentu bat jaso zaiogun
Euskal Herriko lurrean.

*1974-eko irailaren 28'an
Zeruko Argia, 1974-X-20
Goiz-Argi, 1974-X-30*

NERE AMAREN HERIOTZARI

1976-ko martxoaren 20-an hil zen, arratsaldeko sei terdietan. Hurrengo egunean, arratsaldeko seiretan izan ziren hiletak. Igandea gertatu zan.

- 1/ Epailaren hogeigarrena
ez zen izan egun motza,
udaberriak bizitza dakar
ta guretzat heriotza.
Azken arnasa eman orduko
han gelditu zen hilotza,
maitasun hutsa beti izan zen
gure amaren bihotza!

- 2/ Gure barnean hutsune latza
geroztikan ezagun da,
etxeratzean beti galdezka:
«Ene! Gure ama nun da?».
Bere Jabeak hotsegitean
mundutik betiko jun da,
Jainkoa eta bere umeak
beti maitatzen jardunda.

- 3/ Azken agurra egin genion
biharko edo etziko,
gu ere hemen urte askoan
ez geralako biziko.
Seguru nago sari eder bat
zenuela mereziko,
zeru erdian egongo zera
betikotasun guziko.
- 4/ Oi, zein ederra laguntza hura
heriotzako orduan!
Bere odolez itsatsitako
zortzi semeak onduan.
Inork maitatu baldin bagaitu
behar bezela munduan,
bera izan zen, eta geuk ere
halaxe maita genduan.
- 5/ Azken arnasa eman artean
hain ziren une larriak!
Zortzi senide han egon ginen
ohe ondoan jarriak.
Ama galtzean puskatzen dira
familiko lokarriak,
haren oroitzak elkar gaitzala,
senide maitagarriak.
- 6/ Hainbat maitatu ondoren ama
joan zaigu ingurutik,
bere irudi maitagarria
ezin kendu dut burutik.
Erdi negarrez eskabide hau
egiten dizut mundutik:
zure bularrez azitakoak
gorde itzazu zerutik.

7/ Hau da tristura! Joanak joan,
jarraitu behar aurrera;
sortu geranok hortarakoxe
etorri ginen lurrera.
Egunen baten joaten bagera
geure baserri zaharrera,
elkarri egin dezaio gula
egiten zigun arrera!

8/ Zuk ezagutu zenuen ongi
munduko pobreen drama
kejatu gabe eramán behar
hainbeste umeen zama.
Esker oneko izan beharrak
hau esatera narama:
arnasik dedan bitartean nik
ez zaitut ahaztuko, ama!

1976-ko Epailak 23

DENOK EZ GERA SANTUAK

1/ Dantza leku batean,
gaur arratsaldean,
sartu gera bi lagun
Amara aldean.
Mota denetakoak
neskatxa taldean,
baina haiek ez zeuden
denak debalde han.

2/ Bat arrimatu zaigu
ta hasi hizketan,
gu balienten batzuk
gerala ustetan.
Halako zirrara bat
sartu zait estetean,
sentitu ez dedana
sekula bestetan.

3/ Lehenengo hitzetikan
hasi zaigu hika,
alboan jarri eta
azpitik zirrika.
Ikusi dutanean
hark zeukan barrika,
izaturik irten dut
handikan korrika.

- 4/ Hainbat zirku ikusi
hamar minutuan,
eta biok lotsatu
gera segituan.
Ikusi gaitunean
erdi kukituan,
a zer nolako farrak
egiten zituan!
- 5/ Gaztetatik ohituta
zefon atso hura,
arpegian harturik
sorginen itxura.
Harriturik nengoen
begira petxura...
Bi meloi haiek saldu
zitezken pixura!
- 6/ Ezpain gorri-gorriak,
azkabalak berdin,
eskotea galanta
petxuaren erdin.
Ilea rubia ta
betazalak urdin,
tximistak erretako
zugaitza zirudin.
- 7/ Begiratua zeukan
harek okerrena,
Francoren kontrakoa
begi ezkerrena.
Sudur luze galanta
ta anka errena...
Nereganatu zena
ez zen ederrena.

- 8/ Ilunpe hartarako
nahiko dotorea,
nahizta drogerikoa
izan kolorea.
Kanpotik egon arren
polita lorea,
hari heltzen dionak
zeukik balorea!
- 9/ Leku hoietarako
ez gaude beruak,
guretzako ez dira
hango *aingeruak*.
Kolpetik galdetu dit
neskatxa eruak,
ikusi nahi ditudan
haren kuleruak!
- 10/ Munduan egin arren
txintxoaren plantak,
denok ez gera hemen
santu eta santak.
Hauxe esan nai luke
nere bertso-kantak:
oraindik ikusteko
gaudela galantak!

1977-ko abenduaren 13-an

AITONA BATEN BARNEMINAK

1/ Larogei bat urteko
aiton zimeldua,
baina ez zen nik uste
bezain geldua.
Horra zer galdera zen
nigana heldua:
ea mundu hau dagon
erdi usteldua.
Berak azaldua,
bertsotan bildua,
zuei bialdua,
ez dadin galdua,
haren iritziz nola
dagon mundua!

2/ Zoratuta gaudela
pentsatzen hasirik,
guretzat ez dagola
inon hesirik.
Mundu dena galtzeko
tresnak erosirik,
horra misilak edo
nuklear suzirik.
Gure desgrazirik
ezin ikusirik,
begiak itxirik,
Jaunagan jausirik,
esperantza bakarrik
daukat bizirik.

3/ Bi nagusi dauzkagu,
mirabe bakarra,
mundu hau konpontzeko
martxa kaskarra.
Amerika maltzurra,
Errusi azkarra,
Europarentzat dator
bi hoiengue negarra.
Nuklear indarra
aurrerapen txarra,
sua eta garra,
hau da zoritxarra!
Geronen burua geuk
galdu beharra!

4/ Kutsadura zikina
norahahi zabaldu,
kimika eta kea
dira ugaltu.
Industri-tximiniak
nolatan itzaltu?
Herri miserableak
nondik jan behar du?
Ke beltzez estaltu,
jendea petraldu,
protesta azaltu,
arrazoi ez al du?
Aurrerapenen truke
herria galdu!

5/ Mundu hau ikusirik
nola bizi trankil?
Pakea urrutian
ta gerra hurbil.
Zertarako hainbeste
tanke eta fusil?
Mundua gerra baten
bildurrak darabil.
Zergatikan ixil?
Arma eta misil,
hor tartean pil-pil
diru asko dabil.
Bitartean munduan
hainbat gosez hil.

6/ Bide arriskutsutik
askotan jokatu,
geuk jarritako sokan
gera urkatu.
Makina automatatuz
gizona trukatu,
geroz ta okerrago
gera bilakatu.
Jendea sobratu,
lan bila nekatu,
ta ezin topatu,
zaiguna tokatu...
Lana egin nahi eta
bera ukatu!

7/ Begirada tristea
lan gabe dagonak,
goibeltzen du ondoren
datorkionak.
Egun aspergarriak,
hauzoan txanponak...
«Gerra hortikan dator»
zioen aitonak.
Bi miloien sonak
hola gaudenonak;
joan ziren bromak
eta egun onak.
Horren irtenbiderik
ez du gizonak!

8/ Zeinentzat ote dugu
mundu hau antola,
kalterako den pentsa
gabe inola?
Droga bildurgarria
ez bada alkola,
pixka bat zoratzeko
hor dago futbola.
Nolatan kontsola,
ikusirik hola,
guregan dagola
guzien kontrola?
Aberastu ezkerro
zeini ajola?

9/ Gure haundinahi eta
inbiri zikina
zorutzen gaituztenak
dira, jakina.
Besteren onak sortzen
diguen samina,
gorrotoa da gaurko
pekatu haundina.
Holako dotrina
da gaurkoen grina.
Nahigabe gordina,
ematen du mina:
denetik edukita
bizi ezina!

10/ Jendeak esaten du
ondo goazela,
askoz egun hobeak
badatozela.
Hori da urrutiko
intxaurreak bezela:
bertara joandakoan
gertatu ustela.
Ezin da bestela,
jarraitu honela.
Gu oker gaudela
nik uste detela,
eta pena horrekin
hilko naizela!

1978

JOXE AGIRRE «ORANDARI»

- 1/ Izarraitzpeko kattagorria,
basoaren oihartzuna,
harrokerizko ikastetxetan
asko ikasi etzuna.
Lurrak dituen arrazoi sendoz
osaturikan zentzuna,
Euskal Herrian amaika aldiz
gustora asko entzuna.

- 2/ Izarraitzpeko baserri baten
harkaitzean sortu zan da,
orain arteko bertsolarien
sustrai hori izan da.
Iturri garden gozoetatik
bertsoen ura eranda,
hire eskola paregabea
sortu hintzaden «Oranda».

- 3/ Egun batean lur sakonean
erein ziguten hasia,
udaberriko gazte haroan
gogor loratzen hasia.
Geroztik ez du jakinduria
liburutan ikasia,
baizik amaren bular gozoak
erantsi zion grazia.

- 4/ Gaztetan hasi eta geroztik
herriz-herri zenbat pauso!
Berez etorri ona duenak
kantatutzen dik eroso.
Triste daudenak alaituzeko
aparta izan haiz oso,
Euskal Herrian eragina duk
hamaika algara gozo.
- 5/ Bertsotarako erreztasuna,
entzun-gozoa abotsa,
edozein gaitaz kantatuzeko
ez dena inoren lotsa.
Arrazoieta apartekoa,
ziri sartzaile zorrotza,
alderdi denak aipatzekotan
ez zegok zerrenda motza!
- 6/ Omenaldia hartzeko, Joxe,
hik ez duk hainbat edade,
nonbait hirekin oroitu dituk
besteak baztertu gabe.
Jatortasunez egina hago
herri-bihotzaren jabe,
aurrez zorion anaikorrenak
ikusten ez bagerade.

*1979-ko urtarrilaren 22-an
Deia, 1979-II-4
Zeruko Argia, 1979-II-4*

ESKERRAK EMANEZ

1/ Gaur dira hamairu urte
etorri nintzala,
Deban sartua zegon
gaueko itzala.
Nonbaitean afaldu
egin behar zala,
ez zenidaten egin
arrera makala,
badakizute ongi
ahaztu ez naizala.

2/ Etxean sartu nintzan
bildurri moduan,
arpegi iluna ta
tristura barruan.
Geroztik zenbat ordu
nik zuen onduan!
Laguntza eman eta
zaintzeko orduan,
hobeagorik ez dut
aurkitu munduan.

3/ Badakit ongi zer den
nere pekatua:
sarritan esker ona
zuei ukatua.
Izango al duzute
ia barkatua,
eta eskerrik asko,
etxe sakratua,
hor ez naiz ni sentitu
seme sobratua.

4/ Orduan ezagutu
baginen aurpegiz,
geroztikan lagundu
didazute egiz.
Bakoitzak laguntzen du
bihotzaren neurriz,
eta nik pentsatu dut
makinabat aldiz
hoberik ez dudala
aurkituko berriz.

1979-ko martxoaren 13-an

DAMASO ETA JOXE

- 1/ Bi lagun jator ditut
txiki-txikitandik,
orain bizi direnak
urruti nigandik.
Goraintziak bialdu
nahi diet hemendik,
gogoratuaz bizi
naizela oraindik.

- 2/ Hoiekin pasatu dut
nik une goxorik,
elkarrekin bizi az
urteak osorik.
Orain ez dakit dauden
sano edo gaixorik,
nik behintzat ez daukat hil
diren abixorik.

- 3/ Damaso eta Joxe
dituzte izenak,
badakizkitez nere
pozak eta penak.
Laguntzeko garaian
esku zabalenak,
egunak alaitzeko
prendarik onenak.

4/ Hamairu urterekin
lagunak berezi,
gero Etxe Haundian
sufrituaz hezi.
Makinabat aldarte
elkarrekin bizi,
egun haiek ahazterik
ez ditek merezi.

5/ Elkarrekin paseak
guk hogeit bat urte,
adiskidetasuna
berekina dakarte.
Nahizta zuek gaur bizi
nigandik aparte,
lagun jarrai dezagun
bizi geran arte.

1979-ko uztailean

BERTSOLARIEN TXAPELKETA

1/ Zaleak geradenok
hau duk suertea,
bertsoaz amaitzeko
aurtengo urtea!
Bizirik baldin banaiz
nahi dut joatea,
merezi duelako
gogoz entzutea,
beste inun berdinek
ez duen artea.

2/ Bertsolari onenak
dira biltzekotan,
antolatu diguten
txapelketa hortan.
Dirua behar zala
parte hartzekotan,
sari tentagarriak
ezer jartzekotan,
milagroak egiten
badaki askotan.

- 3/ Zertarako jarri dan
aurten txapelketa,
beti bertsolariak
entzuten gaude ta?
Euskaldun sena dago
barnean gordeta,
aurka ikusi nahia
amorruez beteta,
apostu zale beti
izan gerade ta.
- 4/ Jende asko zegoen
aspaldian eske,
eta oraingo hontan
gozatu gindezke.
Herriak ez dizute
eskatzin hainbeste,
pixka bat estuturik
birika ta este,
ausartzen zeratenak
agertu zaitezte.
- 5/ Plaza gizon batzuek
hain dira trankilak,
barrua lasai eta
kantatzen abilak.
Beste batzuek berriz
nerbioak hilak,
eta gelditzen dira
erdi inutilak...
Hortan ez gaituk denok
berdinak, mutilak!

- 6/ Herriak ere zerbait
ez al du merezi?
Berak pagatzen ditu
sari eta guzi.
Burruka noble hortan
burrukatzen hasi?
Ez zaiozute gusto
hori galerazi,
nahiz ta zuek ezer
gutxi irabazi.
- 7/ Badakizute ongi
ikuitzen bihotza,
nahiz ta kantatu poza
edo heriotza.
Kaso bakoitzarentzat
arrazoi zorrotza,
hortan ez daukazute
jakinduri motza,
zuek zerate ezin
dutenen abotsa.
- 8/ Hiru urtetik behin
ospatuko dala,
Euskaltzaindikoak lan
hortan dabilzala.
Geuk ez dezagun galdu
bertsoen itzala,
jakinik euskeraren
alde gabiltzala,
horregatik bakarrik
alkartu gaitzala.

9/ Arrasate, Gernika,
gero Donostira,
makinatxobat jendek
egingo du jira.
Aita Nafarroa ta
Araba balira,
ai ene, zenbat jende
gure alderdira!
Mugaz harunztik ere
etorriko dira.

10/ Mitinlari erdeldun
askotxo dagola,
gure hizkuntzagatik
etzaie ajola.
Hor ikusiko dugu
Aitorren odola,
euskera txukun eta
garbi dariola,
uste det Euskadiri
komeni zaiola.

*1979-ko azaroaren 24-ean
Deia, 1979-XII-23*

BERTSOLARI TXAPELKETAREN ONDORENAK

- 1/ Bertsolarien txapelketa hau
Euskaltzaindiak jarria,
baina babesa eskeintzearren
hor agertu da herria.
Arretaz eta erne jarririk
jendetza izugarria,
eta guziok nabaitu gendun
gauza bat harrigarria:
bertsolaritzan sortu zaigula
beste molde bat berria.

- 2/ Garai batean bertsolaritza
tabernetan zen ezarri,
baina gerora antzerki eta
plazara zuten ekarri.
Lan hontan majo saiatu ziran
Uztapide ta Basarri,
ta oraingoan molde berri bat
dakarkigula igarri,
ikastetxe ta goi mailarako
bidean digute jarri.

- 3/ Zerbait berria sentitu zuen
gure bihotzaren suak,
hor txapelketan entzundakoak
ez ziraden berdintsuak.
Sakontasunez harrigarriak
ta pentsakeraz osuak,
neurrian berriz bete-beteak
eta hain doinu gozuak,
ondasun hauek zekarzkiguten
Amuritzaren bertsuak.
- 4/ Ene, Xabier, hire bertsoak
hautsi zigutek hesia,
mintzaira gozo, pixuz betea,
hura bertso eresia!
Hitz bakoitzean zeramakiten
sakontasun berezia,
ezagun zien ez hengoela
arinkeritan hezia,
txapela ere eraman huan
eta ondo merezia.
- 5/ Beste hamasei jator hoieri
nere esker-zorionak,
aspaldi hontan urduri eta
gau asko esnai egonak.
Igarotako estu aldiak
ez ziran izango bromak,
jendeak zion: «Hauek ez dituk
bertsotan bakarrik onak,
baizik joku bat irabazi ta
galtzen dakiten gizonak».

- 6/ Maila hortara ez dituk beti
nahi duten denak iritxi,
asko uste ta gero erdia
ezin inun erakutsi.
Probatu gabe on asko gaituk,
probatutakoak gutxi,
egun gaiztoak pasatu behar
hor nahi badiogu eutsi,
geronen kulpaz hain errez galtzen
ezingo diogu utzi.
- 7/ Bertsolaritzak ez du merezi
alde batera uzterik,
ez ote dago ume ttikiei
eskolan erakusterik?
Guk badakigu berez ez bada
ez dagola ikasterik,
baina akaso piztu liteke
hasi ezkerro gazterik,
ikastetxetan erakustea
ez genuke nahi besterik.
- 8/ Gure hizkuntza hartu gendunok
bularretikan eranez,
bertsolaritza maiteko dugu,
nik pentsatuzten dudanez.
Baina laguntza ez da egiten
mingainarekin esanez,
baizik jaialdi ta saioetan
entzule sutsu izanez,
ta hor dabilten bertsolari
babes gozoa emanaz.

*1980-ko urtarrilaren 12-an
Zeruko Argia, 1980-11-3*

NERE SORTERRIA DEN ZUMARRAGARI

- 1/ Nere urte onenak
hor nituen laga,
urrutira joan nintzen
gero beharbada.
Baina zorra bertsotan
nahi nizuke paga,
nere jaioterria
zeran Zumarraga!
- 2/ Bixitatzera ere
joaten naiz hemendik,
baina berdintsu ez da
maitatzen urrundik.
Gogoratutzen zaitut
sarritan oraindik,
milaka esker hartu
itzazu nigandik.
- 3/ Hau da egi sakon bat
askotan jarria:
jaiotako seaska
da maitagarria.
Bihotza gogorra du
edo da harria,
maitatzen ez duena
bere sorterria.

1980, uztaila

IPARRAGIRRE ETA URRETXU

- 1/ Urretxuko herrian
jaioa suertez,
gaur oroituko gera
zure ehun urtez.
Gu ezagunak gera,
ai!, zure bitartez,
horregatik eskerrak
herritarren partez.

- 2/ Iparragirre zela
arrote pobrea,
inork ez zion eman
erentzi hobea.
Urretxuak hor dauka
seme bat noblea,
herri kantari diren
bihotzen jabea.

- 3/ Hainbeste kanta eder
eta herri kutsuz,
Euskadiren anima
musika bihurtuz.
Zure gitarrarekin
zumu dena urtuz,
hortan saiatu zinen
anima ta gorputz.

- 4/ Zu sortu zinen lurrak
abesten du hola:
«Gernikako arbola
bizirik dagola».
Herri hau ez da hilko
inondik inola,
ixuri arte berak
deraman odola.
- 5/ Zozobarro baserri
hortan zinen hila,
pasa zenituena
herrialde mila.
Honuntz etorri zinen
pakearen bila,
musikoen zeruan
gozatu dedila.
- 6/ Sorterriak jai hauek
eskeintzen dizkitzu,
hortan saiatuko da
gogotik Urretxu.
Zuk eman zenituen
bezela berdintsu,
zor denak ordaintzeko
egingo zaizkitzu.

*1980, abendua
El Diario Vasco, 1981-I-18
Argia, 1981-III-8*

LAZKAO-TXIKIRI

- 1/ Lazkaomendian sortua zinen,
txantxangorri atsegina,
triste daudenak alaituzeko
haurtzarotik duzu grina.
Buruz argia, mintzo goxoa
eta gorputzez hain fina...
Zeruak duen pusketarikan
onenarekin egina.

- 2/ Zorionean elkartu ginen
lehengo baten Elgoibarren,
ezer jan gabe txiste kontatzen
afaria izan arren.
Kamioika bat txiste ta broma
berek in nola dakarren,
orduan ere denontzat poza
besterikan ez zekarren.

- 3/ Txantxangorria txori alai
hemen diren egaztitan,
udaberrian bezela berd in
neguko elur bustitan.
Lazkao-txiki, zurekin berd in
elkartzen geran guztitan,
alaitasunez uzten gaituzu
farrezko negar eztitan.

- 4/ Txantxetakoa ez da izaten
bertsolari baten lana,
estu ta larri aurkitutzen da
gero saioa daukana.
Zu berriz beti txiste ta broma
bestek alaitzen afana,
urduri dauden artean sarri
zu zera ezti tantana.
- 5/ Liburu baten bildu itzazu
gertaera ta txisteak,
zure ahotik aldatutzean
nahizta gelditu tristeak.
Bestela lanak emango ditu
buruz denak ikasteak,
zu hildakoan konta ditzaten
Euskal Herriko gazteak.
- 6/ Sarri frankotan tokatzen zaigu
triste samar ibiltzea,
eta bihotza piztutzeko da
nonbait zurekin biltzea.
Guk ez dugu nahi txori alairik
herri hontan ixiltzea,
ez dugulako nahi mundu hontan
triste bizi ta hiltzea.

*1981-eko abenduaren 28-an
El Diario Vasco, 1982-I-3*

NERE ALABATXOAREN LEHEN PAUSOAK

- 1/ Apirilaren seian zuk eman
zenitun lehen pausoak,
oinak dardaraz zenduzkan eta
zabal-zabalik besoak.
Entrenatutzen pasa dituzu
bi ilabete osoak,
zu ikusiaz pozez txoratzen
gaude zure gurasoak.

- 2/ Bildurti eta zalantzazkoak
izaten dira lehenak,
ta antzekoak zahartzaroan
ematen diren azkenak.
Ene, Mirentxu, milaka dira
bien tartean daudenak,
zure bizitzan zuhertasunez
eman ditzazula denak.

- 3/ Ibiltzen ere ikasi duzu
zerekasa zabiltzala,
noizbait erortzen baldin bazera
ondoan aurki gaitzala.
Gu geran arte izan zazula
babesa eta itzala,
gero Jainkoak bere eskutik
zuzen eraman zaitzala.

4/ Hegatu zaite, enaratxoa,
baina ez joan urruti,
ama ta aita egongo dira
etorri arte bildurti.
Azkar hegatzen diren txoriak
pagatzen dute narruti,
askatasuna ez baida beti
zorionaren barruti.

1982-ko apirilaren 10-an

BORDARIRI

- 1/ Mendiko magal goxo batean
borda zuri bat ageri,
hantxe egosten ditu bertsoak
ta olerkiak ugari.
Haize gaiztoak inoiz mendera
ezin duen borda hori,
ameslarien igeslekua
zu izan zera, Bordari.

- 2/ Emaztearen maitasuna zuk
agertzen duzu bildurti,
beste aldetik arrantzaleen
izena jarririk zuti.
Zu egon zera mundu hontako
zaratetatik urruti,
zure barnea bihurturikan
amets ederren barruti.

- 3/ Gazte denboran harro gabiltza
ta zahartzaroan umil,
gure heriotz hunkigarria
ikusten denean hurbil.
Gure geroa olerki eta
idatzietan badabil,
zuk badakizu sekula ere
zu ezin zindezkela hil.

4/ Bertsolarien maixu haundia
nik gogoratu nahi nuke,
zerbait merezi duzulakoan
hainbeste bertsoen truke.
Gorantza edo zurikeria
gaizki hartuko zenduke,
baina gizona bizi delarik
omendu behar genduke.

1982-ko uztailaren 16-an

GEROAK JAKIN DEZAN

1/ Mila bederatzirehun
larogei ta bia,
abenduko ilaren
hemeretzia.
Donostiako Baldan
gendun jaialdia,
bertso txapelketaren
azken kantaldia.
Ona egualdia,
erdi oskarbia,
bildu zen jendia
bost bat mila ia;
euskaldun geranontzat
egun haundia.

2/ Aurtengo txapelketaz
ez dala idatzi,
eta aitatu gabe
ezin dut utzi.
Hirurogei ta lautik
hautatuak zortzi,
bakoitzak goi mailari
gogor zion eutsi.
Alkar ezin hautsi,
zenbat diferentzi
zuten erakutsi,
zegoela gutxi;
berriro Amurizak
txapela jantzi.

3/ Bertso mota guziak
haunditik txikira,
bederatzi puntuko
doinu berrira.
Gaiak ere denetik
zuten jira-bira,
txepel samarrak eta
politak erdira.
Sei ordu begira,
ezin erretira,
jarrita sikira
egondu balira;
bertso zaleak asko
gozatu dira.

4/ Hor ez da erabili
ezertan erdera,
bereziak horretan
bakarrik gera.
Hartu genduen herri
haundien tankera,
ezpain denetan soilik
gure mintzaera.
Bazen da aukera
jasotzen hizkera,
hangoen jokera
zen garrasi bera:
Gora bertsoalaritza
eta euskera!

5/ Bertso honek guzien
abizena dakar,
aipatzeko probatu
direnak alkar:
Azpillaga haundia
ta Enbeita melar,
Peña gaztea eta
Garmendia zahar;
Lizaso su ta gar
Lazkanorekin sar,
Lopategi izar,
Amuriza oilar,
zuen izenak jakin
ditzaten bihar.

6/ Urrengorako falta
zaigu hiru urte,
gazteak gertutzeko
bien bitarte.
Bertsotan ikasteko
hainbeste elkarte,
eta berriei egin
behar zaie tarte.
Hor hartuaz parte
hamaika aldarte,
berekim dakarte,
badatoz fuerte.
Agur guztioi eta
ordura arte!

1982-ko abenduaren 30-an

ALKATE IZANGO BANINTZ

1/ «Alkate» gaiarekin
solasean gabiltz,
zer egingo genduken
galdezka dabiltz.
Boterea maltzurra
izaten da anitz,
ez luke izan behar
serbitzeko balitz.
Hau da nire baldintz:
al den gutxina hitz,
egin zenbait langintz
eta euskeraz mintz,
Elgoibarko alkate
izango banintz.

2/ Ondoren herriari
sustraira ezarri,
ikaskintza guziak
dohainik jarri.
Gero maixu jatorrak
herrira ekarri,
musika eta dantza
entretenigarri.
Esan dugu sarri
gaudela egarri,
kale ta basarri,
diogu igarri
kultura dela herri
baten oinarri.

3/ Langabezia ere
tristeia deritzat,
familian ogia
dugu premitzat.
Alkateak hartuko
bagenduke haintzat,
lan garrantzitsuena
liteke guretzat:
ezin dutenentzat,
pobre guzientzat,
zer jana behintzat;
ta langileentzat
lanpostu bana sortu
bakoitzarentzat.

4/ Gazteak zer gurutze
txarra daramaten,
konturatuko gera
egunen baten.
Bide okerretikan
direla joaten,
beti guraso eta
maixuak esaten,
zein zaila daukaten
zintzoak izaten,
beste zerbait jaten
hasiaz ematen,
droga eta alkola
utzi ditzaten.

5/ Euskadin behar dugu
etxeko hizkera,
eta hitzegiteko
jarri aukera.
Euskal telebista ta
irratia bera
ume eta gazteak
entzuteko era;
daukagun galera:
irtenda kalera
guztia erdera;
konturatu gera
salbatuko gaituna
dela euskera.

6/ Jokera gaizto asko
dira nabarmendu,
eta jendea hortik
ezin atzendu.
Beste baratza baten
herria mantendu,
guk eskeinitakoa
gustora jaten du.
Hau dela zimendu,
askok esaten du:
«Okerra zuzendu
egingo bagendu,
alperrik ziren eta
kartzelak kendu».

7/ Herri txiki hauetan
ezinik kabitu,
pilatuta bizitzen
gera ohitu.
Plaza ta espaloiak
pixka bat haunditu,
zugaitzez eta loraz
guziak ornitu,
errekak garbitu,
keak errenditu,
egin behar ditu,
hauxe zait gelditu:
etxe eta kaleak
zuri-berritu.

8/ Atzerriko semeak
ditzadan gogora,
eta ekarri azkar
beren txokora.
Espetxeak ireki,
presoak kanpora,
familiar biltzeko
heldu da denbora.
Ez gaitezen zora
kantatuaz «Gora!»,
bilduaz gerora
amaren ondora,
itxaropen guziak
ditezen lora.

9/ Herriak zoroetxe
bihurturik kasi,
igandetan mendira
goaz ihesi.
Atsedan leku nahi
nituzke ikusi,
ume eta aitonak
direla nagusi.
Inor ez berezi,
ez baidu merezi,
barkatzen ikasi,
etsai eta guzi,
alkar maitasunean
gaitezen bizi.

10/ O, ene Jauna, kendu
zaidazu lausoa,
egi bihurtu dedin
amets gozoa.
Mundu hau da promesa
denen frakasoia,
ez dedila gertatu
neronen kasoia.
Hau da errezoa,
zerura jasoa:
herri ta hauzoa,
Elgoibar osoa
egun batez bihurtu
paradisoa.

1983-ko lorailaren 2-an

NI HILTZEN NAIZENEAN

(Doinua: Ogiz bakarrik ez da gizona bizi)

- 1/ Hain dohakabea nola
sortu nintzen mundura,
zoritzarrik inon bada
neretzako da hura.
Zeinek ote dauka nere
animaren ardura?
Ruleta zororen batek
dabil nere bentura,
ixtripu batetik irten
ta beste ixtripura,
destino txar batek jota
dagonaren modura.

- 2/ Arazorik badut, jaunak,
hau dena esateko,
ixtripu batean ia
gelditu nintzen seko!
Mirariren bat behar dut
mundutik ez joateko,
odolusten baldin banaiz
zertaz naute beteko?
Inor gutxi omen dago
odola emateko,
zurea eman zaidazu
bizirik irauteko!

3/ Odolemaile maitea,
eskerrak niregandik,
pozik bialtzen dizkizut
klinika honetandik.
Seinale da maitasuna
bizi dela oraindik,
sinismen mota gehienak
galdurikan neuzkan nik,
baina holako trantzeak
pentsatu arazten dit
mundu au zuzentzen norbait
badela gure gaindik.

4/ Nini atzean gordetik
egoten da negarra,
gutxina uste denean
agertzen du adarra,
ezpainetatik kenduaz
aguro irrifarra.
Txoro haizeak kentzeko
ez dago mundu txarra,
etortzen denean gure
etxera zoritxarra,
orduan sentitzen dugu
urkoaren beharra.

- 5/ Besteren odola ematen
birlandaketak egin,
erdi hilak piztutzea
egiten dute berdin.
Holako aurrerapenak
ematen du atsegin,
elkar serbitzuan hola
jarraitzen badugu fin,
gizartearen zerua
ikusitzen dut urdin,
neu ere salbatuko naiz
ta gezurra zirudin.
- 6/ Kirofanora sartu naiz
aurten lau aldiz kasik,
eta hortik ez du inork
ateratzen lainezik,
ia ez nuen munduan
jarraitzeko ametsik.
Bizipoza ausnartzeko
ez da holako gauzik,
nere buruan ez nuen
pentsamentu hau baizik:
heriotzaren aurrean
ez dagola jolasik.

7/ Lukurak ez gera izan
sekula euskaldunak,
eta zerbait eskeintzea
hainbat hartu dugunak,
sortzeko orduan dohain
eman zitzaizkigunak,
baldin ongi kontserbatzen
badizkit osasunak,
nere begi eta bihotz
odol ta guntzurrunak,
zuei txertatzeko uzten
dizkizuet, lagunak.

8/ Heriotza maltzurra da
denontzat gehienez,
astirik ez da izaten
inguratzen denean.
Horregatik gaur bertatik
nijoa zuzenean
testamentuan uztera
guzion izenean
nere gorputz zati denak
zuentzat azkenean,
beste norbait bizi dedin
ni hiltzen naizenean!

1984

NERE SEME-ALABEI

- 1/ Ilbeltzaren zortzian
bataiatua Jon,
oraindik elizara
sartu gabe zegon.
Bizitzan izan dadin
zintzoa eta on,
aingeruz jantzi eta
zein polita dagon!

- 2/ Hiru bat hilabete
jadanik pasiak,
zazpi bat kilorekin
haunditzen baziak.
Lagundu dezaiola
zeruko graziak,
nik opatzen dizkiot
zorion guziak.

- 3/ Ilbeltzak bederatzi,
gaur astelehena da,
nere alabatxo
doa eskolara.
Ikusita bakarrik
zer pena den, hara!,
malkoak badatozkit
bi begietara.

- 4/ Eskutik gogor asko
aitari helduta,
urduri goaz biok
nahiko bildurtuta.
Eskolako lagunak
berriak ditu-ta,
neu're negarrez nago
penaz oroituta.
- 5/ Hori maitasunaren
seinalea dala,
bihotzean antzeman
diot berehala.
Zuregatik jartzen naiz
zeharo makala,
maite zaitudalako
ezin esanhala.
- 6/ Hortxe zai egongo naiz
berriz etxerako,
ni iritxi aurretik
ez zera aterako!
Estudioak dira
zure onerako...
Ai!, aspertuko zera
amaitutzerako.

1984-ko ilbeltzaren 9-an

SATURRARANGO SUA

- 1/ Ai, Saturraran! Ai, Saturraran,
gure egoitza maitea!
Atzo goizean ikusi zaitut
su eta keaz betea.
Guretzat kabi goxo izana,
hori da errematea!
Hainbat apaizen igesleku ta
zorionaren atea!

- 2/ Eleiz aberats, axolagabe
batek abandonatua,
aitona zahar bat nola hiltzen den,
errukia ukatua.
Barka zaiguzu seme alenoi
egin dugun pekatua,
gaztearoko amets zoroen
gordeleku maitatua.

- 3/ Hortxe ikasi genduen pozik
igeri ta jolasean,
gure burua landutzen gogor
estudio ta klasean.
Zutaz ez dugu oroipen txarrik
gosea izan ezean,
hamaika egun eder paseak
gera zure babesean.

4/ Hauts bihurturik gelditu zera
heriotzaren iduri,
geronen kulpaz galdu zera ta
zertaz malkoak ixuri?
Guzion partez agur bero bat
eskeintzera nator zuri,
horko urteak ez zaizkigu ta
inola ahaztuko guri.

1984-ko Abuztuaren 25-ean

GIZONAREN LAGUNIK ONENA
(Doinua: «Ai, gure antziñako...»)

1/ Arzakur bat banuen
deitzen zena *Mendi*,
ez txiki, ez haundi;
gizarajoa inon
ezin egon geldi,
ta azkenean tiroz
digute errendi.
Huraxe zen neretzat
lagun eta sendi.
Ai, haren bizitza nik
konta al banendi!

2/ Mendian bizi ginen
txabola batean,
harkaitzen artean,
pobreak izan arren
zorion betean.
Berrehun ardi zaintzen
gu bion artean,
sekula ez nuen nik
lotutzen katean,
bizi zedin pozikan
ta libertatean.

- 3/ Arrazaz kruzatua
edo mestizoa;
haren arazoa:
jatorriz ezin zela
harrotu gaixoa.
Baina nigan aurkitu
zuen gurasoa,
neronekin igaroz
bizitza osoa,
hain zen zalameraoa
ta karinosoa!
- 4/ Lanerako zegoen
prestu eta trebe,
ez bazegon grabe,
begi-belarri haiek
jasorik suabe.
Edozein ziñuetaz
egiten zen jabe,
motzagoak badira
hamaika mirabe...
Dena ulertzen zuen
hitzik esan gabe.
- 5/ Ardi zaintzen bazen ni
halako doblea,
hura zen moldea!
Zakur batentzako zer
erentzi hobe?
Bere akats bakarra:
izatez pobrea;
alderdi onak asko
zituen ordea:
buruz apartekoa,
fina ta noblea.

6/ Hamasei libra etzen
botata pixura,
ta gizen itxura;
gurasoak etzuten
asko hazi hura.
Baina nik gobernatzen
banuen ardura:
batzutan babarrunak,
bestetan gazura,
zegoena biontzat
anaien modura.

7/ Mendiko jira biok
egiten genduan,
zer poza zenduan!
Sarri txistu ta kanta
aberats moduan.
Baina konturatzen zen
tristura orduan,
eskuak miaztuaz
jarrita onduan;
halako lagunikan
ez dago munduan.

8/ Txillarrez ta almitzez
eginik kamaina,
beraren tamaina,
lasai lo egiteko
ona, alajaina.
Lozorroan zegola
zirudien, baina
arriskurikan bazen
hura atezaina!...
Txabola zaintzen zuen
lau guardiak haina.

- 9/ Igandero etxetik
egin behar jira,
buelta bat mendira,
erropa garbiekin
gu bion kabira,
andrea ta alaba
etortzen badira,
bidera irten eta
salto arpegira...
Sarri egoten nintzen
negarrez begira.
- 10/ Nere alaba zuen
bere gogokoa,
harekin jokoa,
berdin miazten zion
mingain ahokoa.
Bere maitaleentzat
hark zeukan txokoa,
jende arrotzarentzat
zorrotza mokoa,
txikia izan arren
errespetokoa.
- 11/ Nere txakur txikia,
leial ta umila,
ardizain abila,
gauetz galdu zait eta
ibili naiz bila.
Mendiari emanaz
jira-bira mila,
azkenik arkitu dut
etzanda trankila,
gizon kriminal batek
tiroz jo ta hila.

- 12/ Gauez eta egunez
salati bizia,
bere malizia,
alta zegoen zakur
baten kutizia.
Horregatikan kendu
diote bizia,
hori egin duenak
dauka merezia
berari gertatzea
zure desgrazia.
- 13/ Haren erretratoa
ezin dut desegin,
daramat nerekin:
ile kizkurra zuen,
begi biak urdin;
azari kolorea,
bizkar gaina gordin,
buztana tentea ta
belarriak berdin;
goataz egindako
panpina zirudin.
- 14/ Geroak izan dezan
bere oroipena,
galdu litekena,
bertsoz eskeintzen diot
nik azken omena.
Ezin kendurik nago
bihotzeko pena,
galdu didatelako
lagunik onena.
Hartu zazu betiko
zure atsedena!

KARNABALETAN

1/ Karnabaletan jantzi
behar omen zan da,
ni indioz jantzi naiz
andreak esanda.
Ez gauza hortarako
zalea izanda,
baizik lagunei hitza
nengoen emanda;
pailazo egiteko
etorri zait txanda.

2/ Erropatik parpailak
behera dariola,
burua lumatoki,
zirudin kaiola,
arpegian hamar bat
desberdin margola...
Inork ikusi izan
banindu ni hola,
laster esango zuen
burutik nagola!

3/ Deabrukeriren bat
egiteko asmoz,
kopak edanda erdi
berdoztuta gatoz.
Xirri goxo batzuek
ematen dute poz,
samba dantzatzen dabiltz
hoinbeste neska motz,
gu hor sartzen bagera
ez dute izango hotz.

4/ Ipurdia mogituz
sugeen antzera,
ikuittu goxoentzat
badugu aukera.
Guk ere jolastu nahi
oraingo legera,
baina ez gera ausartzen
golpetik *ligera*,
desio txar hoiekin
konformatzen gera.

5/ Batzuk deabru eta
ni berriz indio,
neskatxak laster egin
digute adio.
Penaz aldegin behar,
zer erremedio!
Gazteak aiton bati
far egiten dio,
disfraz horrek ez zuen
gehiegi balio.

ITXAROPENARENAK
(Doinua: Ikusten duzu goizean...)

1/ Bizitzaren bi aurpegi,
aldakorrak errezegi,
kantatzea dut zilegi.
Pozkidak labur, saminak luze
bihurtzen badira egi,
gurutzea astunegi
gertatutzen da maizegi,
baina heldu eta segi.

2/ Mingaina daukat kantari
eta bihotza jauzlari,
poza dutela nabari.
Herri triste bat gerala beti
esaten dihardunari:
eskerrak eman Jaunari,
eta berdin bizitzari,
bada arrazoi ugari.

3/ Egunsenti pozgarria,
eguzkiak ekarria,
guk gozatzeko jarria.
«Loak uxatu, sendi maitea,
badator egun berria».
Seme-alaben irria
eta kariño garbia
dira munduko argia.

- 4/ Ardiak goiztar larrean,
goiko mendi bizkarrean,
eta zugaitz adarrean
bi birigarro amodiozko
beren kantu ederrean.
Hau ikusirik aurrean,
aitortu derrigorrean:
ez gaude leku txarrean.
- 5/ Itxasoa bare bare,
uhinik batere gabe,
zingira mantsoen pare.
Gure arima, liluraturik,
edertasun hauen jabe,
baina sarritan halare
ustez gera dohakabe,
ta triste bizi gerade!
- 6/ Pozaren haide tristura,
negar malkoa ezkura
da bizitzaren mixtura.
Zorionaren une goxoak
behar ditugu eskura,
ta goibel dagoen hura,
dohakabeen modura,
etorri bedi kantura.
- 7/ Bi amorosen dirdira,
beti elkarri begira,
begietako ninira.
Maitasunaren lore politak
zimelduko ez balira...
Maiteminduen segira,
bertsotatik olerkira,
hain zoragarriak dira!...

- 8/ Ez zaite izan alperra,
landuaz zeure bazterra,
herriangatik, sobera!
Zapalduz daudenak jaso
eta zuzendu okerra,
gorrotoa eta gerra,
otoi, mesedez, desterra!
Oi, bizitzaren ederra!
- 9/ Herri mendratu bat hola,
ixuriz bere odola,
zertaz poztu eta nola?
Jainkoagatik, nik ere badut
herri minaren axola,
baina ez ahantzi iñola:
txoriak, preso dagola,
alaitutzen du kaiola.
- 10/ Esaerak dion legez,
penak sortzen dira errez,
algara gozoak nekez.
Haundizki eta pobreak berdin:
gaur zerbait, bihar ezerrez.
Erruki eske mesedez,
ta laguntzarik inon ez,
hori etortzen da berez.
- 11/ Sortu ginenak biluzik
ez dugu beste amesik
tristeak alaitu baizik.
Gure munduko egunak dira
gehientsunak geza-gazik;
ez da loteri errezik,
baina sufrimentu ezik
ez dago munduan pozik.

12/ Nahasturik datozenak
dira pozak eta penak,
guk dastatzeko daudenak.
Alaitu denok, zapaldu eta
hasperenez zaudetenak;
herri baten etsipenak
uxatzen dizkigu denak
biharko itxaropenak.

Argia, 1985, uztailak 7

AMA ETA ALABA ELKAR HIZKETAN
(Doinua: Lexo zanarena)

- 1/ – Baina zergaitik, ama,
gaude beti gerran,
ikusi ezinik dabiltzan zakur
basatien eran?
Egiten dugun dena
besteen galeran,
ez dakit nola kristauok horren
setosuak geran.
- 2/ – Ai, nere zeru puska,
atzo nere sabel!
Kontura gabe zera, maitea,
zazpi urtera hel.
Ongi esplikatzea
zaila zait, Ixabel,
baina berdintsu ibili ziren
Kain eta Abel.
- 3/ – Ikastolan entzunak
dakizkit segidan;
baina, ama, bi izen hoiek nik
ez dakit zein diran.
Badakit gaizto asko
dela jira-biran,
baina mesedez esan zaidazu
hoiek nortzuk ziran.

- 4/ – Bibliako bi anai
dira hoiek biak;
Abel zintzoak zaintzen zituen
mendian ardiak,
Kainek berriz bere
lurralde haundiak;
Abel ez zuten ongi ikusten
Kainen begiak.
- 5/ – Nola sortu zitzaien
ikusi ezina?
Edo guk gerez ote daukagu
txarrerako grina?
Zertarako da, ama,
izatea fina,
mundu hontako nagusi bada
zakurrik haundina?
- 6/ – Kain gaiztoak ere,
bere frakasuan,
Abel zintzoa bertan hiltzea
erabaki zuan.
Bera aurkitutzean
bakarrik basuan,
lepotik heldu eta bertantxe
labanez hil zuan.
- 7/ – Ama, anai bat nola
hainbeste gorrota?
Heriotz batek ez ote zion
batere inporta?
Mundua usteldurik
gaur omen dago-ta,
ez naiz harritzen gu egotea
minbiziak jota.

- 8/ –Kainek erein zuen
gorroto hazia,
geroztik dago mundu honetan
gogortzen hasia.
Exenplu horrek digu
adierazia,
zuhaitz txiki bat ia haundia
dagola hazia.
- 9/ – Senide bat hiltzeko
dagoena gertu,
burua edo bihotza zaio
zeharo okertu.
Zerbait konprenditzeko
nahiz burua lehertu,
mundu hontako gorrotoa nik
ezin dut ulertu.
- 10/ – Oraindikan, Ixabel,
ume bat zera zu,
horren kezkatu ikusirik
triste jartzen nazu.
Aingerutasunean
jarraitu ezazu,
pixkat haunditzen zeradenean
ulertuko duzu.
- 11/ – Nere buru txikian
ezin da kabituz,
holako gauza sakonak ezin
ditut entenditu.
Aingerutasunean
hobe dut segitu,
gerra txar hoiek ulertzekotan
ez dut nahi haunditu.

TENE MUJIKARI

- 1/ Heriotzarekin gu
jartzen gera erne,
geroaren hazia
zaigulako erne.
Ai, zer nolako pena
hartu dedan, ene!,
gure ondotik joan
zeralako, Tene.
- 2/ Zu beti euskeraren
alde ta goardian,
nahiz etxean edo
plazaren erdian.
Beti mintzatzen zinan
hizkuntza garbian,
Jaunak gorde zaitzala
betiko argian!
- 3/ Idazleen ispilu
izan zinena zu,
emakume izanik
meritua duzu.
Hartu itzazu, Tene,
gugandik bi muxu,
eta zerutik denoi
lagundu zaiguzu.

1986

NERE AITAREN HERIOTZ EGUNEAN

1/ Kantatutzera nijo, jaunak,
ez nago oso alai-ta,
nere arima arindutzeko
sistema bakarra baita.
Hau da tristura! Denok hil behar
luzaroan bizi nahita,
gaurko egunez Jaunak beregan
eraman du nere aita!

2/ Hogeitau hamalau familikoak
zure ondoan ginen bil,
ia ikusi genuenean
heriotza zela hurbil.
Mundu honetan bizi zinena
hain paketsu eta trankil,
esaera den bezelaxe zu
«nola bizi halaxe hil».

3/ Mundu honetan ibiltzen gera
burrukatzen eta lehian,
zerbait geroko izan dezagun
bizitzaren epepeian.
Baina azkena guretzako da
Jainko Altsuaren deian,
eta aitari tokatu zaio
martxoaren hamaseian.

4/ Milla pasata bederatzirehun
larogei ta sei nola den,
gizaldi honen bian jaio ta
oraindik zeunden zu lerdan.
Umeak hazten al zenuena
egin zenuen zuk hemen,
eta munduko lanen saritzat
bestean hartu atsedan.

1986-ko martxoaren 16-an

LURRAK ESTALIKO DU NERE AJEA

1/ Buru soiltzen ari naiz,
hau da komeria!
Gazta zuri galanta
zait ageria.
Berez dugu urteek
duten loteria,
amaitzear dagola
lurreko feria.
Nere aberia
edo miseria,
ilea eria
daukat alegia.
Horra mundu hontako
harrokeria!

2/ Itxusitu naizela
emazteak dio,
hobe nuela kontu
hartu banio.
Txapelez estaltzea
lehen usadio,
orain berriz guziak
horren kontrario...
Nahiko kalbario
daukat horratio,
ileak jario,
agur ta adio...
Sistematik onenak
ez du balio.

3/ Masaje ta ttanttanak
hartzera astero,
apaindegi onenak
naute bezero.
Emaztea erritan
daukat egunero,
hainbeste sufritzerik
ez nuen espero.
Milaka jenero
probatu ezkerro,
jarriko naiz ero,
hilko ditut gero
hiru mediku eta
lau pelukero.

4/ Maltzurak badirela
hori da jakina,
baina neroni izan
buru arina.
Jarriko zidatela
ile-orde fina,
kalboa estaltzeko
oso atsegina.
Ai, Ama Birjina!
Hau da imajina,
dirudit panpina
goataz egina,
jantzirik kapusaia
ta pelukina!

5/ Ilea sortzen zela
buruan berriro,
tontoak engainatzen
dabiltz biziro.
Xoxak kendu artean
mintza xamurkiro,
erreza etzela ta
hartzeko astiro.
Prezioak igo
eta ez da giro,
esanda garbiro
utzi naute txiro.
Holako motxailiei
eman lau tiro!

6/ Ile erortzeari
ezin diot eutsi,
buruari emanik
mila igurtzi.
Oraindik litezkela
berriro erantsi,
ileak birlandatuz
buruan itsatsi.
Hamarretik zortzi
dira gezur-ontzi,
diru denak suntsi
ta ileak gutxi,
baina ezin didate
pakean utzi.

7/ Harrak jaten omen dit
ile xuxter zaina,
horra mozorro gaizto
horren azaina!
Deabru hoiek naute
zeharo engaina,
estaliko zutela
nere buru gaina.
Burla ta iraina
denak, alajaina;
ez nahi duten haina,
pena dute baina
buru soildurik nago
gizon bikaina.

8/ Hontan baderamazkit
ia sei bat urte,
eta erotutzer
behartzen naute.
Ai, zenbat sufrimendu,
diruak aparte!
Gaizki hitzegitera
derrigor nakarte.
Denak dute parte,
hainbeste elkarte,
gezurra bitarte,
ez naiz joango bate,
buru dena zeharo
kalbotu arte.

- 9/ Hainbeste artimaina
zertan erabili,
xoxak kentzeko zenbait
gizon apali?
Nere itxaropenak
dituzte estali,
hoiengan berriz ezin
ninteke itzuli.
Belar ta patxuli,
burua kiskali,
ezerrez estali,
por sacco bidali.
Eskarmenta gabeak
kontuz ibili.
- 10/ Ez dut berriz hartuko
hoien masajea,
engainatzeak eman
dit korajea.
Hainbat gastatu eta
hau duk bixajea!
Berez bakanduko da
nere ilajea.
Laster biajea
goiko parajea;
hor dago kajea,
pinuzko trajea.
Lurrak estaliko du
nere ajea!

Deia, 1986-V-24

DEBAKO IKASTOLAREN ZILARREZKO EZTIAK

- 1/ Zilarrezko eztaiak
ikastolak bete,
eta zoriontzera
gustora nakarte.
O zenbat oroitzapen
ordutik gaur arte!
Baina jarrai aurrera
beste ehun bat urte.

- 2/ OARGI-k eman zion
lehenengo urratsa,
gero herri babesak
bizitzeko hatsa.
Kostata etorri zen
zuretzat bedatsa,
dena berpizten duen
aro aberatsa.

- 3/ Ikastolak orduan
jasan zuen guda,
bertan hilko zen hala
biziko zen duda.
Baina urte gutxian
egin zuen muda,
landare ttiki hura
zugaitz bihurtu da.

4/ Gure itzaropenak
badu artizarra,
berak erakusten du
non dagon iparra.
Hizkuntza da herrien
sustrai ta indarra,
salbatuko gaituen
zutabe bakarra.

5/ Gure itzaropena
ikastola danez,
jarraitu euskararen
babesa izanez.
Amaitutzera noa
gauza bat esanez:
lan egin duten denei
eskerrak emanez.

1986

LURRAK ESTALTZEAN

1/ Zahartzen ari naiz eta
nonnahi aberia
zaikit ageria,
amaitzear dagola
lurreko feria.
Orain berriz ahoa
jarri zait eria,
hortzak usteltzen ari
zaizkit alegia;
mina ezin kendurik
nere komeria!

2/ Derrigor joan behar
dentistarengana,
eta hura lana!
Ni goapo ipintzeko
bazuten afana.
Hau da kalbarioa
pasatu dudana,
mina kentzeko hortzak
behar sakabana;
hobe eman banien
hortzetako bana!

- 3/ Beldurti makurra naiz
ezin esanhala,
zeharo makala,
ate joka hastean
nengoen apala.
Dena betea zegon
itxoiteko sala,
farrezka etorri zen
erizain petrala...
Ai, ezagutu banu
nik haien perkala!
- 4/ Akabatu zenean
aurreko hilada,
«Zeorren txanda da».
Sila eletrikora
joateko ikara!
Horratz mehe batekin
hura zen sastada!
Burua galtzen eta
lausoz begirada...
Erizainari eman
nion besarkada!
- 5/ Sastada bakoitzean
salto eta brinko,
ezin egon tinko,
izerdi larritan blai
beheko eta goiko.
«Anestesi hortatik
ez al dugu nahiko?
Mareatzen ari naiz
ene, alajainko!».
Ondoezak emanda
lurreraino ziplo!

6/ Zerraldo erorita
hango ixkanbila
sendagaien bila!
Berpizteko ekarri
zuten kamamila.
Konortea ekartzen
zer minutu pila!
Orduan izan banu
eskuan makila,
munduan izango zan
bat gehiago hila!

7/ Nola astindu zidan
aho zirkiluak
sastadagailuak?
Lepapera igota
neuzkan girgiluak.
Geldirik egoteko
haien ixtiluak,
baina nere garrasi
ta nere uluak...
Ez nau harrapatuko
berriro alu hark!

8/ Sesio baten lau hortz
atera zizkidan,
guziak segidan,
eta haiek kentzean
besteak dilindan.
Hura zen entresaka
ahoaren jiran!
Leize zulo galantak
ager zitzaizkidan,
eta ez dakit inoiz
estaliko diran!

- 9/ Zergatik ote nintzen
honuntza ingura,
oraintxe kontura;
ikusita bakarrik
hauxen da piura!
Hartu dut kalabera
berberan itxura,
hortzetan jarri arren
urre edo zura,
ez da mejoratuko
nere *hermosura*.
- 10/ Berriz joateko egin
dizkit aleginak
erizain sorginak,
jarriko dizkidala
urrezko aginak.
Nere intentzioak
ez dira berdinak,
hortxe gordeko ditut
Jainkoak eginak,
lurrak estaltzean
joango zaizkit minak.

1986

EUSKERAREN AGONIA

- 1/ Euskeraren ohantze,
zertan zaude murriz?
Betiko xuxpertzeko
lanean gabiltz.
Gure ekintz xaloak
bitez goizeko ihintz,
loretxoak berpizten
dira hola ainitz.
Hau da nere baldintz:
egin zenbait langintz,
euskeraz denok mintz,
eman dezagun hitz.
Seme dohakabeak
galduko balitz!

- 2/ Sapelaitz zikoiztuak
txitatxoei mehatx,
gu beldurrez gabiltza
goiz eta arrats.
Nagusituko gera
ez bagabiltz narrats,
bitartean pasarik
hamaika negu latz.
Laster dugu bedats,
zein aro aberats,
izerdi eta pats,
eman zaiogun hats,
gure eskutan daude
hainbeste urrats.

3/ Herriak irauteko
erroak ezarri,
hontan eragozpenik
inork ez jarri.
Batzuk lanean dabiltz
buru ta belarri,
euskeraren arima
nahirikan itzarri.
Lagunduz elkarri,
herrian jesarri
guzion lokarri,
esan dugu sarri
hizkuntza dela herri
baten oinarri.

4/ Amaren bularrean
xamur ikasia,
egurraren mendean
galerazia.
Aztarrenik gabeko
hizkuntz berezia,
errespeto pixka bat
duzu merezia.
Esaten hasia
gure desgrazia,
zenbat aldiz ia
adierazia
hizkuntzaren epaia
dela bizia!

5/ Zohardi urdinean
gaudela ametsez,
euskera jantzi zaigu
dolumin beltzez.
Etsaiak hor dabiltza
behatus sahetsez,
oinperatu nahian
desira traketsez.
Hau diot bihotzez:
mintzatu ahotsez,
egon gabe lotsez,
hilko zaigu bertzez,
ezer ez da berpizten
promesa hutsez.

6/ Eratx odei ilunak
ta bihotzak gora!
Oraindik salbatzeko
dugu denbora.
Gure hizkuntza zaharra
behar da birlora,
hobeagoren bila
ez joan inora.
Geurea adora
jarriaz ganora,
eta hau gogora:
alperrik gerora
hilobian jartzea
milaka lora!

1986

ABESTU EZIN DIREN PENAK
(Doinua: «Triste bizi naiz eta...»)

- 1/ Ez dakit, jaunak, nola
agertuko dedan,
ama batek bi seme
hil ditu baineran!
Bertan itota utzi
kriminalen eran...
Nik al dakit noraino
iritxiko geran!

- 2/ Bizitza triste baten,
ene, zenbat trago!
Ezinaren mendean
azkenik akabo!
Konprenitu ezinik
oraindikan nago,
bere puska hilko duen
amarik ez dago!

- 3/ Ongi ez zebilela
dio notiziak,
eta nozitu behar
haurtxoen biziak.
Agoniko trantzean
orruka hasiak...
Ene, zer ote ziran
haien garrasiak!

- 4/ Senarra lanik gabe,
berdin emaztea,
ume bat gaixo eta
negarrez bestea.
Horrela igaroaz
jai eta astea,
harritzekoa al da
zorutzen hastea?
- 5/ Ama asko dabilta
estu alajaina,
gaurko estresari ezin
harturik tamaina.
Hortarako ez dela
arazorik baina...
Badira arrazoiak
erotzeko haina.
- 6/ Penaz lehertu baino lehen
noa ixiltzera,
eta esanahi dena
hitz hontan biltzera:
mundu hau galbidean
doa amiltzera,
ama bat irixteko
semea hiltzera.
- 7/ Gaixoa joango al zen
Jaunaren ondora,
aingerutxoek duten
zorion osora.
Nik ere betiko nahi
zaituztet gogora,
zuen hilobi hortan
jarriaz bi lora.

8/ Neuk ere arrixkua
hortan badetela,
etxean bi aingeru
hazten dauzkatela...
Burutik jartzen banaiz
ni horren motela,
haur hoiek hil baino lehen
neu hil nazatela!

1986

**URRE ETA ZILARREZKO EZTAIETAN
DON ANES ETA DON MIKELI**

Don Anes:

- 1/ Eleiz dorreko ezkil maitea
komeni da ixiltzea,
aldare baten goazelako
Aitarengana biltzea.
Gustatu izan zaizu Debako
haur denekin ibiltzea,
opa dizugu gurekin bizi
eta gurekin hiltzea.

- 2/ Trajea grixia, pauso makala
eta makila eskuan,
zakur txiki bat atzetik eta
txapela buru-kaskuan,
hola ikusi izan zaitugu,
Don Anes, urte askuan;
eta, mesedez, hilda gero're
gure artetik ez juan.

Don Mikeli:

- 3/ Batek urrezko eztaiak eta
bestek berriz erdia,
zuhaitz zaharra ihartutzean
badator kimu berria.
Ordezko ona edukitzea
denontzako pozgarria,
asko maitatuz zaindu ezazu
sortu zinduen herria.
- 4/ Zeu sortutako herri polit hau
eman zizuten aukeran,
ongi dakigu jaioterrian
zein zoriontsua zeran.
Gaur zilarrezko zure eztaiak
ospatzen ditugun eran,
egunen baten urrezko eztaiak
ospa ditzagula Deban.

1987-ko urriak 25

HASPEREN TTANTTA BIHOZTIAK

1/ Jai gau sargoritsuan
belardi batean,
mendien tartean,
Zarauztik gora joanik
Aiako partean.
Biok elkar loturik
zorion betean,
ez dakit sartu nintzen,
haruntz joatean,
zeru erdian edo
infernuko atean.

2/ Dantzaleku batetik
irtenik kanpora,
zerbait espero da,
hitz pottoloak eta
dena boga-boga.
Ai, zein polita zauden
bihotzeko lora!
Eskuak legun-legun
lepotik kolkora...
Errez asko eraman
ninduen zepora.

- 3/ Mutil harekin nintzen
tratatzen hasia,
bazuen grazia,
neskatxak engainatzen
ongi ikasia.
Horrelako uretan
askotan pasia,
baina nik ez eduki
haren malezia,
nerekin egin zuen
nahi zuen guzia.
- 4/ Ilabete osoa
pasarik horrela
triste ta goibela,
denbora bete arren
jetxi gabe *regla*,
mutilari beldurrez
deiturik berela,
dardara baten esan
nion nik honela:
«Pedro Mari, uste dut
haurdun nagoela».
- 5/ Lehenengotik ez zidan
hitzikan trukatu,
gero dena ukatu,
hark ez zuela egin
nerekin pekatu,
hortaz hitzegitea
zidan debekatu...
Eta nik ez nekien
burua urkatu,
edo begietako
malkoak txukatu!

- 6/ Agonian sartzen den
gaixoen modura,
hura zen tristura!
Gauz onik ez zitzaidan
etortzen burura,
bertan disparate bat
egiteko duda...
Kontzientzian izan
ez banu ardura,
bertantxe hilko nuen
mutil faltso hura.
- 7/ Abortatzea ere
pentsatu nuen maiz,
biok bertan hil nahiz,
burua urkatzeak
jartzen nindun dardaiz...
Ezer ez nuen egin
Jainkoaren dohaiz,
bere argia eman
zidalako garaiz,
ez nuen uste baina
milagro z bizi naiz.
- 8/ Etxean esateko
dardaraz nengoan,
baina hobe nuen,
nahizta edozer gauza
gertatu ondoren.
«Amatxo, haurdun nago»
nik esan nionen,
begiak malkoz eta
ixilik zegoen...
Baina haretzek hartu
ninduen ondoen!

- 9/ Hamasei urte eta
zenbait desengaino
jasoak gaurdaino!
Bizitzak probatu nau
ez dakit noraino...
Geroari begira
hodei eta laino...
Hobe bakarrik bizi
nik hil arteraino,
zenbait alprojarekin
ezkontzea baino.
- 10/ Barnean bizitza bat
dedala jakinik,
ez dit eman minik,
zertarako ibili
ezkuta ezinik?
Zer gurutzea dedan
ongi badakit nik,
gerorako ez daukat
beste atseginik:
biziko geradela
biok bat eginik!

Argia, 1987-XII-6

BASERRIKO SU BAJUARI
(Doinua: Txantxangorriarena)

1/ O, zenbat oroitzapen,
ene baserria!
Neu sortu nintzen kabi
maitagarria.
Horko su bajua zait
gogoangarria,
sukalde txoko baten
tinko ezarria;
bizi oinarria
bere su gorria,
pobreon argia
ta berogarria;
bertsotan doa nere
oroigarria.

2/ Goizean jeiki eta
nere ama santa
sua piztu ezinik
ibiltzen zan ta,
txotxak ekarri behar
atarira joanta;
gero pizten hasirik
poxpoloak falta,
derrigor behar ta
hango zalaparta!
Umetxoen planta
nahi dizuet kanta,
ez zaitalako hazten
sekula santa.

3/ Bi enborrez bildurik
txotxa ta abarra,
piztu orduko hartzen
zuenugarra.
Hango txinparta eta
hango tirri-tarra,
erreko zela bertan
tximini zaharra!
Hartzean indarra,
suturik txingarra,
sua parra-parra,
guk haren beharra;
pobreok gozatzeko
leku bakarra.

4/ Haurrak seaskatxoan
dilindan alboan,
«Lo-lo» kanta eztia
amak ahoan.
Izugarrizko hotza
zegoen kanpoan,
hura goxotasuna
gure sutondoan!
Kanpora ez joan,
elurra dago han;
sukalde txokoan,
amaren altzoan,
ai, zenbat ordu goxo
nere gogoan!

5/ Hamar senide hantxe
suaren goardian,
aita pipa erretzen
erdi-erdian.

Ama marmarioka
hizkuntza garbian,
errosarioa zen
batasun sendian;
guziok geldi han,
fintasun haundian,
suaren majian,
orma-irudian,
diz-diz ixpilatuaz
bere argian.

6/ Bi enborren gainean
esnea egosten,
hari begira irmo
ez ginen hozten.

Taloa ta esnea
umetxoen sosten,
zerbait ahoratzeko
aginak zorrozten,
eskuak izozten,
ospelak mingosten,
bizia zen txosten...
Eta beste osten,
geroko esperantzak
ginuzen pozten.

- 7/ Gure tradizioan
oinarri eskola,
hor sutan goriturik
daukat odola.
Badakit euskarari
hor egin niola
lehenbiziko agurra
edo diosola.
Bertso eta kopla
ikasiaz hola,
ta saiatu, nola?
Bai, arraino pola!
Arbasoen txingarra
sutan zegola.
- 8/ Gosea eta hotza
kendurikan pozik,
garai batean ez zen
gaurko lainerik.
Guretzat ez zen izan
loteri errezik,
nolabait tripa bete
eta bizi baizik;
ez genuen sosik
erosteko gauzik...
Su bajua ezik,
hilko ginen kasik,
izan ez bagenuen
bere babesik.

9/ Orduan ez zegoen
«Tori eta hartzak».
Zerbait lortutzen zuen
izerdi patsak.
Gogorak ditugunok
lehenengo urratsak,
gero sentitzen gera
beti aberatsak.
Ai, egi zehatzak,
bizitza garratzak
dituen arantzak,
eskarmentu latzak.
Ai, hitzegingo balu
gure elatzak!

10/ Geroztik daramakit
ariman josia,
su baju hortan piztu
nuen zuzia.
Hamaika seme bada
munduan hazia,
zer den ez dakiela
ipurdi gazia.
Nik dutan guzia
dut zure grazia,
esker berezia
duzu merezia,
nik zor dizutalako
neure bizia.

1987

**STRESS-AREN ARAZOAK
EDO EGUN BAT INFERNUAN
(Doinua: esnesaltzailearena)**

- 1/ Andra Mari egunez
eguzki dizdira,
umeen desira,
derrigor hondartzara
egin bear jira.
«Aita, jeiki zaite ta
lehiotik begira.
Eguzkia gogotik
berotzen ari da».
Hura zarata eta
hango jira-bira!
- 2/ Haurren gustoa egin
beharko nuela
nuen errezela,
etxe barrua baida
umeen kartzela.
Zarautza joatea
pentsatu zutela,
denak gerturik zeuden
harturik pardela,
goiz-goizetik hasi zen
gure karrusela.

3/ Aurrean hiru lagun
sarturik kotxean,
beste lau atzean,
ume denak saltoka
buerda latzean.
Ezin kabitu eta
amonak letxean:
«Hola egosten dira
barbantzuk eltzean».
Baina inork ez zuen nahi
gelditu etxean.

4/ Irten da laster sartu
ginen karabanan,
denok banan-banan,
gutxienez hamar bat
kilometro hiladan.
Tortugaren antzera
eguzkitan galdan,
kopetatikan behera
izerdia tan-tan,
umeak negarrez ta
amona demandan.

5/ Ondo kostata baina
jo nuen Zarautza,
hura zen gurutza!
Aparkalekurikan
egon balitz hutsa!
Nonbait utzi behar ta
haruntza-honuntza,
hura izerdia eta
hura arnas-putza!
Bainatuta bezela
nedukan gorputza.

- 6/ Hainbeste traste ez dut
kargatu sekula,
emazteak kulpa,
eta *malaletxea*
ezin disimula.
Bainu-trajea ere
ahaztu zitzaigula,
kotxean *tangatxo* bat
besterik ez zula,
harekin estaltzeko
nere matrikula.
- 7/ Hondartzara korrikan
denak leku bila,
hango ixkanbila!
Bazkalordua ere
ia zen hurbila.
Albaetik atera
patata tortila,
hortzetan kraska-kraska
sartuz hondar pila,
ultzera bat sortzeko
a zer morokila!
- 8/ Etzanda nola egon
eguzkitan sutan
holako lekutan?
Nivea eman nuen
gutxinez hirutan.
Begira gorputzera
zenbat ile dutan,
dirudit txinpantzea
edo orangutan,
ai zer tximinu tzarra
zugaitz baten puntan!

- 9/ Jolasgure galanta
dugu motikotan,
dudarik ez hortan;
gureak ere ez zeuden
geldi egotekotan.
Jo ta ke hasi ziren
futbol ta pelotan.
hondar piloak botaz
amonei kolkotan;
inor ez zen gelditu
inguruan lotan.
- 10/ Ni ere ez naiz izan
futbolen iaioa,
hortako jaioa;
nere huts eta nere
hondar garraioa!
Albotik atso zaharrak
errita saioa:
«Geldituko ote haiz,
zozo-armaioa!».
«Ixildu hadi, andra
txolin arraioa!».
- 11/ Uretan freskatzera
han goaz kuadrila,
hango jende pila!
Gutxienez bazeuden
beste hamar mila.
Olatu batek jota
nere ixkabila:
tanga koskorra kendu
eta haren bila.
Ez zegoen jaxoa
nere sugandila.

- 12/ Zortzirak alde hortan
utzirik hondartza,
etxerako martxa:
bizkarrak gorri-gorri
eta mina latza,
amonak azkurea,
umeeek arrantza,
traste denak ezinik
bizkarrera altxa...
Hura zen karro gabe
ijitoen antza!
- 13/ Ez zen erreza izan
kotxeraino buelta,
atzetik eskolta,
amona eta umeak
ezin nitun solta.
«Semafororik behintzat
ez zazue salta!».
Kotxera iritxita
parabrixan multa!
Erotxeko besterik
ez zitzaidan falta.
- 14/ Berriro karabanan
etxera abio,
tximista jario,
«Hauxen da infernua!»
emazteak dio.
Horrela ibiltzeko
nik ez dut balio,
egun bat pasatzeko
hainbat kalbario...
Agur Zarautzi eta
betiko adio!

EZINAREN URRATADAK
(Doinua: «Ai gure antziñako...»)

1/ Deskalabro makurra
bilakatu zait ta
nahi dizuet aipa:
lan gabe gelditu naiz
ez neronek naita.
Gure tailer koskorra
itxi egin baita,
ta frogatzen ari naiz
zeinek duen maita
kale gorrian dagon
hiru haurren aita.

2/ Paroko listan nago
izena emanik,
beldurra neukan nik,
hainbeste hilabete
hola iraganik.
Itxaropena galtzen
hasia jadanik,
hau esaten didate
noranahi joanik:
ni bezelakoentzat
ez dagola lanik.

- 3/ Berrogei ta lau urte
ditut bizkarrean,
nago indarrean,
baina *peste* hau dator
edade txarrean.
Titulorik ez daukat
nik zoritxarrean,
baina gauza bat nago
esan beharrean:
ez naizela bildurtzen
lanaren aurrean.
- 4/ Udaletxetik deitu
zidaten lehengoan,
gustora nengoan;
deia hartuez gero
nolatan ez joan?
Bakarrik ote nintzen
pozikan nindoan,
baina beste hogeit bat
baziren ondoan...
Kaleak garbitzeko
postu bat zegoan!
- 5/ Aukeratzeko egin
behar bereizketa,
ez da berriketa!
Badakizue zer den
gure ikasketa:
lau regla eta firma
ikasteko beta.
Ez da zaila izango
nere azterketa,
lotsa eta tristura
elkartzen zait eta.

- 6/ Esamina luzea
eta gero *testa*,
zigutena presta;
denei erantzuteko
arriskurik ezta.
EGA-rik ote nuen
gaisetrik galdezka,
ni bezelako bati
tituloak eska...
Hura zen amorrua
eta ezin protesta.
- 7/ Neu aldezteko ez dut
inongo indarririk,
guziak alperrik;
hala diote behintzat
hainbeste oinarrik.
Ez dizuet opatzen
nere zoritxarririk,
baina lanerako nik
hau diot bakarrik:
«Nere garaian ez zen
titulo beharrik».
- 8/ Langabezian utzi
langileri saila,
hau da abantaila!
Holaxe bizi dira
hamaika kanaila,
guraso bat utziaz
bizirik eraila,
hori da gizonaren
kategori maila,
eta ni zapaltzea
ez da oso zaila.

- 9/ Etsipenaren mende
nabil jai ta aste,
bihotza hain triste;
norengatik sufritu
behar dut hainbeste?
Nere kalbarioaz
erruki zaitezte,
astean mila duro
behar bataz beste,
eta hiru haur ditut
ogiaren eske!
- 10/ Malkoak txukatuta
tintirrinari zintz,
umorez nola mintz?
Ixileko negarrak
erraiak dizkit printz.
Lortu ezin dutana
jartzen dute baldintz,
nik nere buruari
esan diot ainitz:
hobe nuela askoz
sortzean hil banintz!

1988

DENOK EZ GERA POZIK BIZI

- 1/ Hastera noa kantari,
eta egon adi-adi,
bertso saminkor batzuk jarriaz
neure buruari.
Baditut pena ugari,
eguneroko janari,
ea poz pixkat sortzen diodan
neure bizitzari.

- 2/ Aurten hogeitau bat urte,
ez dut izan hainbat suerte,
anka bat askoz motzagoa dut
gaitz bat dela parte.
Irauten duen bitarte,
ilusiotik aparte,
gurutze hau nik eraman behar
bizi naizen arte.

- 3/ Pasa nuela «polio»,
nere amak hala dio,
eta geroztik bizi-poz denak
nigandik adio.
Ene, zenbat kalbario
jasan behar oraindio!
Nigarrak eta kejak ez dute
ezertxo balio.

- 4/ Hau da bizitza garratza
eta sufrimentu latza!
Gaitz zital honek bere mendean
gogor hartu natza.
Ezin dut bururik altxa,
hauxe da nere zalantza...
Konponbiderik ez dugunontzat
non da esperantza?
- 5/ Burlaka zenbat tarugo,
tontoago ta maisugo,
ixil-ixilik irentsi behar
hamaika apuro.
Kojo eta kojonudo
deitzen dizute agudo;
atzetik burla eta iseka
dituzu seguro.
- 6/ Geroa zer den jakinik,
ez dago zeru urdinik,
zoritxar honek zeini ez dio
ematen saminik?
Konfiantzaz hitzeginik,
inon ez dut atseginik,
beti hor nabil nere lagunei
jarraitu ezinik.
- 7/ Txikitan nintzen majoa,
jostalari marrajoa,
gaur behazunez bildurik penak
uztera nijoa.
Barrengo karnabak joa
nabil ni, gizarajoa,
beste izenik ez zait gelditzen:
Arbe-ko kojoa.

8/ Oi, bizitza sakratua!
Ni naiz seme sobratua,
kulparik gabe txikitatikan
hola geratua.
Bizi-poza ukatua,
zein da nere pekatua?
Sortuz geroztik ote nago ni
madarikatua?

1989

MAITE KOLUXKEN IZAR BELTZAK
(Doinua: Esnesaltzailearena)

1/ «Zertarako ezkondu?

–diote gazteak–.
Dakartzan nahasteak
abantail asko ditu
frogatzen hasteak.
Elkarrekin bizi-
jai eta asteak...
Baina ikusirikan
nere desastreak,
aber eskarmentatzen
zeraten besteak.

2/ Nere saihets kuttuna

zen Maria Ester,
gazte eta eder.
Hura zen bonboi-puska
bular eta izter!
Nik uste nuen ezin
gintezkela asper,
guk alkarri genion
kariñori esker,
baina betiko kopl-
a gertatu zen laster.

- 3/ Ama erdi negarrez
erritan zen hasi,
ezin galerazi;
bakarrik bizitzen nahi
genuen ikasi.
Gazte baten buruan
ai zenbat fantasi!
Erdi eroturikan
jarri ginen kasi,
eta biok etxetik
joan ginen igasi.
- 4/ Buhardilla zahar baten
jarri ginen biok,
nahi etzuna inork,
sapai xuloa baina
ona derizkiot.
Buruan jotzen digu
zenbait kapiriok,
irrifarrezka nere
buruari diot:
«Ohe batentzat beste
lekurik ez ziok!».
- 5/ «Ez zekinat maitea,
kabittuko geran,
guk nahi dugun eran,
hain kutxitril txikia
nola ikusten dedan».
«Maitasuna ez zegok
leku-gorabeheran;
beste asunto denak
izanik aukeran,
Iñaki, pasatuko
diagu primeran».

6/ Gaueko erreleboan
hasi behar lana
-ai, hura afana!-,
hamalau urtetikan
amestu nuana,
huraxe zelakoan
neretzako mana...
Laster mantsotu zuten
nere hurakana!
Denei etortzen zaie
atalbura kana.

7/ Matxinsalto bezela
salto eta salta,
beti geunden alta;
ez zen nolanahikoa
gure zalaparta!
Nik laster hartu nuen
eskeleto planta,
holako goserikan
nik sekula santa!...
Kondoiaik sobre baina
lapikotik falta.

8/ Etxetik irten barik
egonak gerade,
ez su ta ez labe,
hamabost egunean
berorik jan gabe.
Nere urdail gaixoak
zenbat atsekabe!
Azkenerako jarri
nintzen nahiko grabe:
odoleko anemia
galantaren jabe.

- 9/ «Aizan, nik ez dinat nahi
neure zoritxarrik
edo azken txarrik;
ia ezertarako
ez dinat indarrik.
Goizetik gaberaino
gauza bat bakarrik,
ez zegon Gipuzkoan
holako oilarrik,
lo hartzeko ez dinat
pastila beharrik».
- 10/ «Garbitasunak zeinek
egin behar zetin?
Dena zegon zikin».
«Konforme ez bahago
heuk garbitzen ekin».
«Kozinan edo plantxan
hik ez al dakizkin?
Erropak ximurtuta
beti daramazkin...
Beste asunto batzuk
ederki zekizkin.
- 11/ Nik noiz aldatu behar
dinat kantzontzilo,
edo zikin piloz?
Tripak hor zebilzkinat
beti zurrunbiloz.
Estetatik ezin naun
libra korapiloz,
gure otordu denak
ditun bokadiloz,
ez naun asko gizendu
aspaldian kiloz.

- 12/ Ene! Maria Ester,
oker zihoan hau,
bai egun ta bai gau:
sesio berdinean
bostetatikan lau.
Batetik bijili ta
bestetikan barau...».
Neska lotsagabeak
erantzun zidan rau:
«Ez hik gizon bezela
kunplittu izan bahu».
- 13/ «Prexixua al hunan
hori esatea,
mina ematea?
Kunplitzeko baninan
nik borondatea.
Ez ninan uste baina
hau errematea!
Hontan amaitutzen den
gure gerratea;
hobe dinagu biok
etxera joatea».

1989

AINGERU DIREN BITARTEAN

1/ Bi haur ditut etxean
nere poz guzia,
hoiek munduratzeko
izan dut grazia.
Asko kontura gabe
hazten doaz ia,
nere maitasun dena
dute merezia,
hoiengatik emango
nuke nik bizia.

2/ Bederatzi eta sei
urte dituzue,
adinik politena
oraintxe duzue.
Aitak al duen dena
egingo dizue,
orain artean pozez
bete gaituzue,
gerora zoriona
ekarri zazue.

3/ «Haurrak berekin dute
milaka zorion»,
gizon ospetsu bati
hori entzun nion.
Nonbait gardentasuna
gustatzen zitzaion,
beraz nik ere ez dut
beste pozik inon:
maitatu eta zaindu
Mirentxu eta Jon.

4/ Gaur umeak hazteko
egiten den drama!
Nork jarri ote dio
horrelako fama?
Egi hau aitortzera
horretzek narama:
ez dira inoiz izan
neretzako zama
bi haur maitagarriak
eta hoien ama!

5/ Gurasoen beharra
bizitzen hasteko,
gero laguntza pixkat
haundiak hazteko.
Zuek luzaro bizi
elkar ikusteko,
nik ezin detanean
zapatak jazteko,
eta azken orduan
begiak ixteko.

6/ Gau eta egun nago
umeei begira,
hoinen pausoak eta
hoiek duten jira.
Arrazaren luzapen
izango al dira!
Kontentu eta pozik
nintzake sikira,
ni bezain zoriontsu
izango balira!

Argia, 1989-V-21

LEHENENGO ETA AZKEN BIDAIA
(Doinua: Esnesaltzailearena)

1/ Errezilgo puntatik
joanik Donostira,
egin nuen jira,
desio lizun batek
nindulako tira.
Masajeko etxe bat
ikusi desira,
hor zer egiten duten
probatu sikira...
Baina pasatakoak
celebreak dira!

2/ Mutil zahartzen hasia
nolatan nagoan,
indarra ahoan,
baina probatutzeko
desioz nengoan.
Erabakia hartu
nuen nik lehengoan,
lagun baten esana
harturik gogoan:
hori probatu gabe
ez mundutik joan.

- 3/ Horrelako bidaiak
nituen estraina,
hura zen azaina!
Neskatxei bildur nien
deabruei haina.
Azkenean ausartu
nintzen alajaina,
kolonia bota ta
jarririk apaina,
pailazo egiteko
bildur nintzen baina.
- 4/ Gizona nola sartu
leike hotz-hotzean
etxe arrotzean?
Hura zen sufritzea
denbora motzean!
Eskaileratan gora
pauso bakoitzean
zirrara bat sartzen zen
nere bihotzean...
Eta eskuak dar-dar
tirrira jotzean.
- 5/ Zabaldu zuenean
atearen ertza,
nola nengon pentsa;
eta agertu zenak
zirudin iketza.
Neska polita baina
Afrikako beltza,
kolpetik hauts bihurtu
zitzaidan ametsa,
harekin nola piztu
kandelaren metxa?

- 6/ Ez nengoen jaxua
hasteko lanean,
nere afanean,
«Bilutsik jarri zait»
esan zidanean.
Masaje ematera
etorri zanean,
ondoez bat sentitzen
nuen nik barnean,
alperrik zen hastea
hartu-emanen.
- 7/ Bizitzan behin bakarrik
joanik gozatzeraz,
zerbait probatzeraz,
gizarajo tontoa
lotsa pasatzeraz.
Irrifarrez zegoen
neskatxa saltseraz,
ikus ninduenen
trikuen antzeraz,
ileak gogortuta
muturra atzeraz.
- 8/ Argi gorri politez
gertaturik gela,
dizdira zutela,
baina ez zuen piztu
behar zen kandela.
Nere gorputz guziak
zirudien jela,
hildako bat gantzutu
bazuen bezela,
horrela amaitu zen
hango karrusela.

- 9/ Hamar mila pezeta
ez al da nahikoa?
Bai, alajainkoa!
Sesioa izan zen
ordu erdikoa.
Aguro egin zuen
hark nerezikoa,
muturreko hau izan
bedi betikoa,
espabilatuko naiz
tonto lapikoa!
- 10/ Ez dit kalterik egin
zerbait ikusteak
edo ikasteak,
baina lotsagarriak
nere albisteak.
Ez nituen mobitu
garaian *trasteak*,
eta hortikan datoz
orain desastreak...
Eskarmenta zaitetze
nerekin besteak.

1989

ENE PAUSO GALGARRIAK
(Doinua: «Ai gure antziñako...»)

1/ Modan ibili nahia
ta harrokeria,
gaurko komeria;
eskiatzea modan
dago, alegia.
Kandantxun tokatu zait
neri loteria,
sano joan nintzen baina
etorri eria,
nik puska baterako
badut aberia!

2/ Biderako harturik
hauzoko bi lagun,
Joxe ta Erramun,
estraina genuela
aitortu dezagun.
Nongo kaikuak ginen
jazkeran ezagun,
butano koloreko
bi txandal motadun...
Ene, a zer nolako
piura daukagun!

3/ Eskiak eta botak
bertan alokatu,
haundiak tokatu;
soldaduzkan bezela
ezin da trukatu.
Nik pailazoen botak
ez ditut eskatu,
aurretik lotu eta
atzetik askatu...
Traste hauekin baietz
burua puskatu!

4/ Han elurra ari da
beti mara-mara,
gure hotzikara!
Pixka bat berotzeko
hiladan pistara.
Han ibili gintuzten
honuntz eta hara,
mandoak gari jotzen
ohi zuten gisara;
anka baldarrentzako
hura zen pasara!

5/ Oraindik eskiatzen
nengoen aprendiz,
aitortzen dut egiz,
ia partittu nintzen
bertan erdi-erdiz.
Lurruna neriola
barrengo izerdiz,
eta monitoreaak:
«Egin zazu berriz».
Lurrera joan nintzen
hamar mila aldiz!

- 6/ Ikasi nuenean
txutik ozta-ozta,
zitzaidana kostat!
Neretzako dena zen
zulo edo koska.
Tresna haiekin ezin
zitekela josta,
gora ez joateko
denak neri hoska...
Arrastrea hartuta
egin nuen ospa!
- 7/ Arrastretik bildurrez
albora begira
pistaren erdira,
han milaka zebiltzen
jira eta bira.
Denak enbarazotik
zeinek erretira?
Neretzat xirristu bat
balego sikira...
Ni jeisten naizenean
aldenduko dira!
- 8/ Eski domagabeak
noranahi errixta,
hartzen zuten txispa;
goiko puntatik behera
hura zen tximista!
Eta bide erdian
milaka turista,
azkar libratzen zuten
neretzako pista,
ugaritu baino lehen
hildakoen lista.

- 9/ Oinezkoentzat behan
egoten den langa
jo nuen nik danba!
Hesia apurtuta
sartu nintzen zanga.
Ankari heldu nion
«Ai, ene!» esanda,
bazirudien egin
zidala eztanda!
Hantxe gelditu nintzen
zuloan etzanda.
- 10/ Tibia ta perone
hezur biak hautsi,
ez nuen min gutxi;
horra eskiatzea
zer den erakutsi!
Kamilerok ezin
hain azkar iritxi,
eta hotzez dardaraz
garraxika utzi;
ezin nion inola
negarrari eutsi.
- 11/ Kandantxura joan nintzen
ni halabeharrez
edo zoritxarrez,
modako propagandak
daukaten indarrez.
Berdintsu gertatzen da
hamaika bidarrez:
joaterakoan denak
algaraz ta farrez,
eta gero etxera
etorri negarrez.

12/ Eski putre haietan
behingoz nintzen jarri,
pentsatu dut sarri,
zer arrixkua duten
ez nien igarri.
Anbulantzian diz-diz
ninduten ekarri,
orain sendatu arte
hemen nago larri...
Horra hamabi bertso
eskarmentagarri!

1989

IZAZPI MENDIARI

- 1/ Zure izen maitea
aipatzea aski,
ai, zenbat oroitzapen
niregan dakarzki!
Ezagututzen zaitut
ongi gain ta azpi,
nere bixkia zera
azkenik, Izazpi!
- 2/ Umetan beti hortxe
salto eta brinko,
ai, jolas eder haiek
joan ziren betiko!
Ni majo baldartu naiz,
zu hor zaude tinko,
ni laster lurpean naiz,
zu ez zera hilko!
- 3/ Zure pausalekuan
gozatu ezinez,
aspaldian naukazu
bihotzeko minez.
Ea noiz joaten naizen
jira bat eginez,
urruti bizi arren
maite zaitut zinez.

1990-ko apirilean

MIRENTXUREN JAUNARTZEA

- 1/ Poz iraunkorrik ez da munduko gauzetan, eta zu jaunartzeko hor zaude pozetan. Preparatzen jardunik hiru urte luzetan, eguna noiz izango beti ametsetan!

- 2/ Txuri-txuri jantzirik aingeruen gisan, bihar hartuko duzu Debako elizan. Ene, alabatxoa, zein pozik zabilzan! Horrelaxe hil arte zoriontsu izan.

- 3/ Zure bihotz goxora Jauna da jetxiko, bere grazi ederrez zaitu zu jantziko. Hau ez dedila izan denbora gutxiko, zuk uzten ez baduzu ez zaitu utziko.

4/ Ezer eskatu gabe
ematen dakinik,
hemen ez da holako
gizon atseginik.
Bihotzean hartuko
duzula jakinik,
bizi zaitezte beti
biok bat eginik!

1990-ko maiatzak 5

BIZITZAREN AZKENEAN

- 1/ Udazkenean sentitutzen naiz
osasun eta adinez,
bizkar ezurra gogortzen doa
eta giltzadurak minez.
Alde guziak eskaxten doaz
eta noraino jakin ez,
negu gogorra hartu dezadan
berari frente eginez.

- 2/ Berrogei eta hamar urtetan
garaia dut umiltzeko,
osasuna ta pakea behar
lasai samar ibiltzeko.
Eta munduko desio denak
desio baten biltzeko,
azken ordua datorrenean
heriotz on bat, hiltzeko.

1990-ko maiatza

ETSIPENAREN ATARIAN

(Doinua: «Ai, gure antzinako guraso nobliak...»)

1/ Alkolak ondatu nau,
baina hoben hori
ez konta inori.
Nola aipatu ere
zenbait inozori?
Gorputza gaixo daukat,
arima hiltzori,
ta jaulkitzera noa
bertso bat edo bi,
amildegi zuloan
ez nadin erori!

2/ Herri ttiki batean
bizi naiz bakarrik,
badut alde txarrik,
hemen nori jaurtiki
samin-deihadarrik?
Penak hiltzeko ez dut
nik edan beharrik,
baina alkola uzteko
ez daukat indarrik...
Zeinek ulertuko du
nere zoritxarrik?

- 3/ Lagun ainitz nituen
nik garai batean,
galdu bat-batean,
nihor ez da azaltzen
gaur nere atean.
Begirada bortitzak
norabait joatean,
eta nere gaixoaz
zerbait esatean,
arima gelditzen zait
tristura betean!
- 4/ Eliza santa hori
nuen nere ama,
haundinahiko dama,
orain nitaz ahazteko
hor dabil zer asma!
Ez dit arinduko, ez,
ezinezko zama,
baizik ni mazpilduaz
gordeko du fama,
inork ez dezan jakin
apaiz baten drama.
- 5/ Zigorraren beldurrez
arima aiduru
edukitzen dugu,
inoiz ezin igaro
une bat ekuru.
Gizonak salbatzea
daukagu helburu,
baina ni xuxpertzeko
zenbat estakuru,
infernura jaurtiko
nautela seguru.

- 6/ Apaiz berritan nintzen
Don eta Ilustre,
beti hala uste,
orain ez daukat nonbait
lehen haina lustre.
Gizonok klikatzeko
zenbat buruhauste!
Dozena bat gaitzizen
asmatu dituzte,
lur jota gabiltzanok
jasoko gaituzte.
- 7/ Santu egin daiteke,
askoren iritziz,
sotana bat jantziz,
gorputzari behar den
zigorra erantsiz.
Baina neri gerta zait
dena alderantziz,
sarri oheratzen naiz
erropak erantziz,
gaueroko tristura
ardotan irentsiz.
- 8/ Bakardadea zer den
hain bakar izanik,
benetan esanik,
ez nuen sinetsiko
hain gogorra zanik.
Birjintasun botoa
egina daukat nik,
eta ezin aipatu
sexu-harremanik...
Nere semeak zaintzen
ez duzute lanik.

9/ Idortzen ari zaikit
barrengo ezkura,
ta ezin eskura
garai batean nuen
umore fresko hura.
Zitalkeria eta
seta erreztu da,
jarri didatelako
milaka hixtura,
hau isolamendua
eta hau tristura!

10/ Arbola erorian
danbaka haizkora,
ez jaso hain gora...
Erruki begi hauek
nora altxa, nora!
Etsipenaren zizta
heldu zait golkora,
ezin irrifarrerik
ezpainetan lora,
bertan hilko nintzake
horaintxe gustora!

1990

**«TEMPUS FUGIT»
GURE KURTSOKO ZILARREZKO EZTIAIAK**

1/ Ene!, urte onenak
egin dute ospa,
zilarrezko eztaiak
horra aurten ospa.
Urrezkoak ondoren,
lasterka datoz-ta;
haruntz inor iristen
bada ozta-ozta,
zerutik hasiko naiz
zorionak oska!

2/ Hamabi urtekoa
gure soldaduska,
eta handik honera
joan zaigun puska.
Berrogei ta zortzi bat
gutxienak dauzka,
ia emana dugu
emateko uzta,
ai urte eder haiek
orain bagenduzka!

3/ Batzuek apaizgintzan
jarraitzen dute fin,
guk berriz dena utzi
ez ginelako din.
Ai, zenbat ilusioz
egin genuen zin!
Gero aldatu eta
beste bidetik jin,
ez naiz damutu baina
bihotzean dut min.

4/ Hogeita bost urteak
joan dira hain labur,
fuertenak ere laster
gera buru-makur.
Falta diran urteak
pasa denok xamur;
luzaro bizitzeko
ez dutenak adur,
egun haundira arte
egin behar agur!

1990

IXIL ZAITE, HERIOTZ EZKILA!

1/ Hitzez nola agertu
sentitzen detena,
hain saminkorra baida
barrengo etena?
Harkaitz baten galdu dut
lagunik onena,
bertso kantuan hustu
nahi nuke barrena,
pena erdia baita
kantatzen den pena.

2/ Durangotik aurrera
han dago Atxarte,
harkaitz hartan paseak
hamaika aldarte.
Mendirik mendi biok
jaiero lau urte,
halako sentipen bat
neregan dakarte,
ez zaidana ahaztuko
bizi naizen arte.

3/ Goizean goizik esnai
makinabat aldiz,
mendiko harkaitzetan
zintzilik goiz-argiz.
Ai, lagun maitearen
begi biak diz-diz!
Beti zegoen farrez
edo beti irriz,
hauxen da pena: ez dut
ikusiko berriz!

4/ Dastatu dugu hainbat
egunsenti eder,
poz jarioan zeru
urdinari aiher.
Zoritxarraren keinu
garratzak halaber,
heriotzaren zizta
berarekin dager,
mendi tontorren aurka
gorputza bertan leher.

5/ Ahotikan odola
kolpeka ertenaz,
aiheneka zegoen
barrengo etenaz.
Itxogiten pare bat
ordu gutxienaz,
garrasiak ez ziren
entzuten apenas,
bertan hilko nintzela
uste nuen, penaz.

- 6/ Ezinaren ezinez
erraiak kiskaliz,
han hiltzen utzi behar
begiak itzaliz.
Ene! Nahiago nuke
zerura joan balitz,
bere anima hegan
aurretik bidaliz,
eta gorpua gure
lurretan estaliz.
- 7/ Ez dut ezer sentitzen
munduko gauzetan,
eta beti zurekin
nabilki pozetan.
Zure izena hantxe
josirik haitzetan,
arima berriz hegan
gure lau haizetan...
Beti ikus zaitzaket
nere ametsetan!
- 8/ Mesedez, ixil zaite,
heriotz ezkila,
zerurantz joan dadin
errezo ixila.
Hain zen lagun maitea,
hain lagun umila,
azken orduan nere
besoetan hila,
betiko goiz-argian
esnatu dedila!

ARKIBIDEA

Hitzaurrea	9
Irakurleari	11
Joakin eta Pello	12
Bizitza garratza	14
Gure zuzendari den Don Frantzisko Garmendiari ..	18
Agur, Joanito Garay!.....	20
Don Juan Martin Irulegiri despedidarako bertsoak	22
Hau bizitza garratza!	25
Uztapideri	30
Ama	33
Nere lagun Jose Aldasorori	35
Nere anai Juan Mariaren heriotz egunean	37
Nere lagun Inazio Zabaletari	38
Zubeltzu zaharrari bere omenaldiko egunean	39
Debako herriari	41
Baserritarren etorkizuna	45
Fraileak eskean	49
Karnetik ezin atera	53
Egun goibeletan	57
Agure baten erresuminak	59
Zahartzaroa	63
Gazte baten bizitzak zer balio duen	68
Gazte baten errenkurak	71
Nere haurtzaroko oroipenak	76
<i>Lengo egunak gogoan</i>	81
Nere amaren heriotzari	85
Denok ez gera santuak	88
Aitona baten barneminak	91
Joxe Agirre «Orandari»	96
Eskerrak emanez	98

Damaso eta Joxe	100
Bertsolarien txapelketa	102
Bertsolari txapelketaren ondorenak	106
Nere sorterrria den Zumarragari	107
Iparragirre eta Urretxu	110
Lazkao-Txikiri	112
Nere alabatxoaren lehen pausoak	114
Bordariri	116
Geroak jakin dezan	118
Alkate izango banintz	121
Ni hiltzen naizenean	126
Nere seme-alabei	130
Saturrarango sua	132
Gizonaren lagunik onena	134
Karnabaletan	139
Itxaropenarenak	141
Ama eta alaba elkar hizketan	145
Tene Mujikari	148
Nere aitaren heriotz egunean	149
Lurrak estaliko du nere ajea	151
Debako ikastolaren zilarrezko eztaiak	156
Lurrak estaltzean	158
Euskeraren agonia	162
Abestu ezin diren penak	165
Urre eta zilarrezko eztaietan	168
Hasperen ttantta bihoztiak	170
Baserriko su bajuari	174
<i>Stress</i> -aren arazoak edo egun bat infernuan	179
Ezinaren urratadak	184
Denok ez gera pozik bizi	188
Maite koluxken izar beltzak	191
Aingeru diren bitartean	196
Lehenengo eta azken bidaia	199
Ene pauso galgarriak	203
Izazpi mendiari	208
Mirentxuren jaunartzea	209
Bizitzaren azkenean	211
Etsipenaren atarian	212
<i>Tempus fugit</i>	216
Ixil zaite, heriotz ezkila!	218

ORAINDAIÑOKO LIBURUAK

117'garretetik aurrera.


- 117-118: *B. Enbeita*: Nere apurra.
120-121-122: *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
123-124-125: *A. Zavala*: Zapirain anaiak.
126: *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127: *M. Arozamena*: Nere aldia.
128: *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129: *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130: *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131: *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132: *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133: *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134: *J. M. Arrizabalo, A. Zavala*: Baso-mutillak. (*Aitua*).
135: *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136: *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
137-138: *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139: *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140: *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141: Bertsolari-txapelketa nagusia, 1980. (*Aitua*)
142: *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143: *A. Zavala*: Nork bere bidea, I. (*Aitua*).
144: *A. Zavala*: Nork bere bidea, II. (*Aitua*).
145: *A. Zavala*: Nork bere bidea, III. (*Aitua*).
146: *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147: *Ataño*: Txori. (*Aitua*).
148: *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak, I. (*Aitua*).
149: *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak, II. (*Aitua*).

- 150: *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak, III. (*Aitua*).
- 151: *Mattin Treku*: Etxe xokotik kantari. (*Aitua*).
- 152: *Xalbador*: Herria gogoan. (*Aitua*).
- 153: *J. K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua.
- 154: *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak I.
- 155: *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak II.
- 156: *F. Artola «Bordari», R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
- 157: *Elkarlanean*: Lexoti bertsolaria.
- 158: *Mari Treku*: Mattin, nere gizona. (*Aitua*)
- 159: *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
- 160: *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.
- 161: *A. Zavala*: Kuba'ko gerra.
- 162: *J. M. Arrieta*: Nere ondar alea. (*Aitua*)
- 163: *J. C. Arrosagaray*: California-tik kantuz.
- 164: *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak, I.
- 165: *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak, II.
- 166: *M. Manterola*: Lore apal bat.
- 167: *J. M. Lertxundi*: Baso tarteko oiua.
- 168: *P. Lazkano, A. Zavala*: Tiro tartean bertsoan.
- 169: *Basarri*: Kezka-giroan.
- 170: *Txomin Garmendia*: Bordaberri'ko gozo-mikatzak.
- 171: *Txomin Garmendia*: Bertsolari-kurpilla.
- 172: *S. Salaberria*: Nere soroko emaitzak.
- 173: *I. Olea*: Otemotxeko arnasa.
- 174: *A. Zavala*: Kristaubidea bertsoan, I.
- 175: *A. Zavala*: Kristaubidea bertsoan, II.
- 176: *A. Zavala*: Ameriketako bertsoak.
- 177: *Txomin Garmendia*: Erririk-erri.
- 178: *Basarri*: Bertsolaritzari buruz.
- 179: *Ataño*: Espetxeko negarrak.
- 180: *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsoan, I.
- 181: *Ataño*: Zigorpean.
- 182: *M. Ostolaiz*: Oroipen-kutxa.
- 183: *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsoan, II.
- 184: *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria, I.
- 185: *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria, II.
- 186: *A. Zavala*: Neska-mutillen arteko bertsoak.
- 187: *A. Zavala*: Ezkondu bearreko bertsoak.
- 188: *Txomin Garmendia*: Beltzak eta zuriak mendian ardiak.
- 189: *Ataño*: Eltzaorra.
- 190: *Pablo Zubiarrain*: Ia kantatuz bezela.
- 191: *Basilio Pujana*: Egi batzuek aixetaratzen.
- 192: *Ataño*: Odol-kutsua.
- 193: *Ataño*: Maitasunaren lanak.

- 194: *Pablo Zubiarrain*: Gaziak eta gozoak.
195: *Bartolo Ayerbe*: Nere mundualdia.
196: *Ataño*: Etorkizuna.
197: *Ramos Azkarate*: Ijitoen kontratuba eta abar.
198: *Erramun Etchebarne*: Erramun harginaren oroitzape-
nak.
199: *Jose Maria Etxaburu*: Neure lau urteko ibillerak.
200: *Jose Azpiroz*: Arbol zarraren kimuak.
201: *Ataño*: Maite itzazute etsaiak.
202: *A. Zavala*: Frantziako Iraultza eta Konbentzioko gerra.
203: *Jose Azpiroz*: Gogoz kontrako pausoak.
204: *L. Rezola «Tximela»*: Bakardadeko ametsak, I.
205: *L. Rezola «Tximela»*: Bakardadeko ametsak, II.
206: *J. Lete «Ibai-Ertz»*: Orrela ziran gauzak.
207: *Ataño*: Aztia usnari.
208: *F. Etxebarria*: Nor garan azaldu.
209: *B. Barandiaran*: Zartu gabe ezin bizi.
210: *Beñat Karrika*: Armendaritze haur begiez.
211: *Basilio Pujana*: Deabruak ostutako urteak.
212: *A. Zavala*: Frantzesteko bertsoak, I.
213: *A. Zavala*: Frantzesteko bertsoak, II.
214: *J. M. Lertxundi*: Igaroari begira.
215: *Ataño*: Azkeneko saskigillea.
216: *J. M. Etxezarreta «Izazpi»*: Hasperen ttantta bihoztiak.



1051051
G-128/74



AUSPOA
LIBURUTEGIA